#239
DOAN

2026 · 10 · 21
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA **hemen**

GOROBEL IBILALDIA **XL NEURRIRA**

Endika Larrazabal

Elkarrizketa



“GERRAK AMAITZEKO, ARMAGINTZAREN NEGOZIOAREKIN AMAITU BEHAR DUGU”

GERVASIO SANCHEZ FERNANDEZ (Kordoba, 1959) GERRAKO ERREPORTARI ETA ARGAZKILARI KORDOBARRA DA. MUNDUKO HAINBAT GATAZKAREN BERRI EMAN DU, BESTEAK BESTE, LATINOAMERIKAN, GOLKOKO GATAZKAN ETA BOSNIAN. BERE LANAREN BIDEZ, GERRAREN ONDORIOAK ERAKUSTEN DITU, BEREZIKI PERTSONEN SUFRIMENDUA, INDARKERIA ETA GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK. IBILBIDEAN HAINBAT SARI JASO DITU, 2009AN ESPAINIAKO KAZETARITZA SARI NAZIONALA, ESATERAKO.



Testua **Garazi Cuadra Alvarez**

Zure lanik ezagunenak gerrari lotuta daude. Orain, ordea, Urduñara eta Amurriora “Activistas por la vida” lana aurkeztera zatoz, bizitza defendatzen duten pertsonez hitz egitera. Zor moralik sentitzen duzu zure objektiboaren aurrean izan dituzun pertsonekiko?

Unibertsitatean nengoela, behartutako desagertzeei buruzko proiektu batekin hasi nintzen. Amnistia Internazionalean militatzen nuen, eta Guatemalan eta El Salvadorren giza eskubideen urraketei buruzko txostenak irakurtzen nituen. Orduan konturatu nintzen desagertutako pertsonen auzia edozein gatazka armaturen drama nagusia zela.

Gerra amaitzen denean, zaurituak sendatzen dira, hildakoak lurperatzen dira eta suntsitutako etxeak berreraikitzen dira. Gaza ere berreraikiko dute, Kabul berreraiki zuten bezala edo Ukrainako ekialdeko zenbait lekutan egin duten bezala. Gerrak 20 urte iraun arren, hiriak berreraiki daitezke. Baina zer gertatzen da desagertutako pertsonekin?

Hor dago arazoa. Gerra bat ez da amaitzen Wikipediak amaitu dela esaten duenean, haren ondorioak gainditzen direnean amaitzen da. Orduan konturatu nintzen epe luzeko ikuspegia ezinbestekoa zela gerra bat behar bezala kontatzeko, batez ere gerratik urrun bizi den eta haren benetako ondorioak ezagutzen ez dituen publikoari.

1995. urtean, Balkanetako eta Afrikako hainbat gatazken berri eman ondoren, gerraren alderik mediatikoena erakusteaz nekatu nintzen, eta ulertu nuen hildakoak, zaurituak eta bonbardaketak erakustea ez zela nahikoa.

Horregatik, 1995. urtetik aurrera, epe luzeko proiektuak egiten hasi nintzen. Horietako bat Vidas Minadas izan zen, pertsonen aurkako minek eragindako biktimen inguruko lana. Hasieran, proiektuaren lehen zatia baino ez zen izan, baina 30 urteko ibilbidea egin du, eta oraindik ere aurrera jarraitzen du.

Bakea zer den galdetzen badizut, ziurrenik definitzeko gai izango zara. Baina ba al dakizu gerra zer den? Munduan badago bakea zer den ez dakien jendea. Noiz gainditzen dira gerra baten ondorioak? Espainiako Gerra Zibila hasi zenetik 90 urte igaro dira, eta oraindik desagertutako pertsonak bilatzen jarraitzen dugu.

"Activistas por la vida” erakusketan, hamarkada luzez ezagutu dituzun pertsonak ageri dira. Zer erakusten dute haien istorioek gerraren ondorioei eta bizirik irauten dutenei buruz?

Argazki hauetan duela 40 urte ezagutu nituen pertsonak ageri dira eta pertsona horiek, gaur egun, gerrarekin zerikusirik ez dutela iruditu arren, lotura zuzena dute harekin. Guatemalako gerrak 36 urte iraun zuen, eta bake-akordioak sinatu zirenetik hamarkadak igaro badira ere, gerraren ondorioek jarraitzen dute. Aktibista ekologistek, esaterako, mehatxuak eta jazarpena jasaten dituzte.

Megaproiektu horiek Europako, Estatu Batuetako, Txinako eta Errusiako enpresek finantzatzen dituzte, tartean, Europar Batasuneko zenbait enpre-

sak ere parte hartzen dute. Egoera horren berri eman behar da. Biktimak babesteko eta gertatzen ari dena salatzeko modu bakarretako bat pertsona horiei izen-abizenak jartzea da, haien istorioak aurpegi eta ahots zehatzekin kontatzea.

Leku horietara joan behar dugu, tragedia honen atzean dauden pertsonak ezagutarazteko eta milaka kilometrora bizi direnei bertan gertatzen ari dena erakusteko. Helburua argia da: inork ez dezala inoiz esan "Ez nekien hau gertatzen zenik".

Niretzat, oso garrantzitsua da horrelako istorioak kontatzea, pertsona horiek direlako benetako heroiak. Vidas Minadas lanean agertzen diren protagonista guztiak nire familiaren parte direla sentitzen dut, albokoaren minarekiko enpatia izaten erakutsi didate, pertsona kritikoagoa eta, batez ere, autokritikoagoa bihurtu naute. Lehenik, norberak bere buruarekin kritikoa izan behar du; ondoren, besteekin.

Zure argazkien bidez gerren ondorioak erakusteaz gain, gatazka horiek sostengatzen dituzten botereei ere begiratzen diezu. Zer neurritan dago gerra ulertzea haren atzean dauden interes ekonomikoak ulertzearen mende?

Gerrak amaitzeko, armagintzaren negozioarekin amaitu behar dela ulertu behar dugu. Nazkatuta nago erakundeek nazioarteko lankidetzaz eta trantsizio ekologikoaz hitz egiten duten bitartean armen ekoizpena eta salmenta diruz laguntzen jarraitzeaz. Helburu horietarako aurrekontu handiak iragartzen dituzte, baina, aldi berean, armagintza babesten dute. Euskal enpresek ere hala egiten dute, eta publikoak horren berri izan behar du.

Ukrainiako gerra nork ordaintzen duen galdetuta, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako armamentu-enpresek ordaintzen dutela erantzungo nuke. Espainiako armen salmentak gora egiten jarraitzen du, baita Euskadiko enpresenak ere, eta oraindik gobernu progresistena dugula esaten jarraitzen dugu.

Gainera, komunikabide gehienak lotura lotsagarriak dituzte kazetaritzarekin zerikusirik ez duten botereekin. Hala ere, kazetaritzan sinesten jarraitzen dut, eta nire istorioak komunikabideetan argitaratzeko borrokatzen dut.

Politikari dagokionez, gogor egiten dut politikari guztien aurka, nekatuta nago gertatzen diren egoeren inguruan sortzen dituzten kontakizunez. Orain, Mari Carmen, kaleratutako emakumea, gure heroi bihurtu da. Sanchezek zortzi urte eta lau hilabete daramatza gobernuan, eta, denbora horretan, 289.000 kaleratze izan dira. Non zegoen orduan herri honen kontzientziaren ahotsa? Non zeuden euskaldunak kaleratzeen aurka borrokatzen? Ez zeuden.

> "Desagertutako pertsonen auzia **edozein gatazka armaturen drama nagusia da"**

Fotokazetaritzak dilema etikoak sortzen ditu. Non dago sufrimendua dokumentatzearen eta hura ikuskizun bihurtzearen arteko muga?

Imajinatu Balkanetako errepide batean, Afrikan edo Latinoamerikan zoazela eta autobus irauli bat aurkitzen duzula, bortxatuak izan diren dozenaka emakume eta neska gazteren gorpuak dituena. Zer egingo zenuke?

Nik forentse baten moduan jokatuko nuke. Dena argazkiz dokumentatuko nuke: gorpuen posizioak, aurpegiak, lehen planoak eta xehetasun guztiak. Gertatutakoa ikusizko dokumentuen bidez erakutsi behar bada, ahalik eta dokumentazio osatuena egin behar da, azken lekukotza izan dadin.

> **"Gerra bat ez da amaitzen Wikipediak amaitu dela esaten duenean,** haren ondorioak gainditzen direnean amaitzen da"

Horrek ez du esan nahi argazki guztiak argitaratuko nituzkeenik. Gerra-krimen baten frogak izan daitezke, eta egileen aurkako ikerketan lagungarriak. Horregatik, argitaratzeko irudi bakar bat aukeratuko nuke, emakumeen aurpegiak erakutsi gabe, eta gainerako argazkiak gordeko nituzke, frogatzat erabili ahal izateko.

Gerra baten erdian ez dago etikari eta moralari buruzko eztabaidarako denborarik. Ume soldaduekin egindako lanean, adibidez, batzuek kontatu zidaten lehen eginkizuna gurasoak hiltzea izan zutela. Horietako bati galdetu nion zergatik ez zuen uko egin. Erantzun zidan bazekiela, hala egin ezean, gurasoak hilko zituztela eta bera ere hilko zutela. Beste haur soldadu batek, berriz, bere aita hiltzeari uko egin zion, baina, ondoren, bere bizitzarekin amaitu zuten eta baita bere gurasoen bizitzarekin ere.

Zer nolako lezio etiko eta moralak emango dizkiegu haur ho-



Elkarrizketa

riei? Ez zuten aukeratzeko askatasunik, bizirik irautea zuten helburu. Halako egoeretan, erabakiak segundo batean baino gutxiagoan hartu behar izaten dira.

Horregatik, gure lanean ezin dugu etikari eta moralari buruzko eztabaidaren atzean ezkutatu. Gerra bera da inmorala eta gizakiaren alderdirik okerrenak azaleratzen ditu. Gertatutakoa erakusten ez badugu, nazien kontzentrazio-esparruetako sarraskiak ez lirateke argazkietan jasota geratuko, eta jende askok ez luke sinetsiko benetan gertatu zirenik.

Beraz, zer egin behar dugu? Eztabaida etiko eta moraletan sartu, milaka kilometrora dagoen norbaiten bazkaria ez izorratzeko? Pertsona horri ez zaio axola, edo oso gutxi axola zaio gertatzen ari dena.

“Erabakiak segundo batean baino gutxiagoan hartu behar izaten dira”







Kevin Carter argazkilariaren kasuak eztabaida handia sortu zuen: goseak jota zegoen haur baten atzean putre bat ageri zen haren argazkian. Zure ustez, zergatik jarri zen arreta argazkilariaren jokabidean, Sudaneko gosetearen errealitatean baino gehiago?

Kevin Carter argazkilari bikaina zen, baina droga-arazoak zituen, ez dut uste argazki hura ateratzeak bere buruaz beste egitera eraman zuenik. Haurra bizirik atera zen, gainera. Sudanen haren inguruko erreportaje bat egin zuten lagun batzuek.

Argazkiaren inguruan sortutako eztabaida oso sinplista iruditu zitzaidan. Jendeak galdetzen zuen Carter nola izan zitekeen gai haur baten ondoan putre bat zegoela argazkia ateratzeko, haurra lagundu beharrean. Baina putreak han zeuden errefuxiatuen esparru batean jendea gosez hiltzen ari zelako. Putreak sarraskietara hurbiltzen dira, baita hilzorian dauden pertsonengana ere.

Argazki hark Sudaneko gosetearekin amaitzen lagundu behar zuen. 1995. urtean eta 1998an Sudanen egon nintzen, eta jendea nola hiltzen zen ikusi nuen. 2026an ere jendea gosez hiltzen ari da Sudanen. Non dago nazioarteko komunitatea? Non daude arazo horiek konpontzeko ardura duten gobernuak?

Zer eskatzen diogu argazkilari bati? Haurra hartu, poltsikoan sartu eta salba dezala? Baina gero ez gara gai gure sofatik altxatzeko eta Espainiako, Euskal Herriko edo Europako gobernuei Afrikako gosetearekin amaitzeko zer ari diren egiten azalpenak eskatzeko. Eztabaida ez litzateke izan behar Kevin Carterrek haur hura salbatu behar zuen ala ez. Benetako galdera hau da: zer egin dugu Sudaneko gosetearekin amaitzeko?

“Gure lanean ezin dugu etikari eta moralari buruzko eztabaidaren atzean ezkutatu. **Gerra bera da inmorala”**

Duela egun gutxi, lagun bat Somaliatik itzuli zen, eta goseteari buruzko argazkiak erakutsi zizkidan. Duela 30 urte nik ateratako argazkien egoera bera ikusi nuen. Arazoa ez da desagertu, eta hori kezkagarria da.

Arturo Pérez-Reverterekin lan egin duzu, gerrako erreportarien irudi heroikoa eraiki duen kazetarietako batekin. Gerrako kazetariaren figura mitifikatu egin al da?

Kazetariaren lana ez da heroia izatea, errealitatea kontatzea baizik. Arturo telebistako pertsonaia ezaguna da, eta gerrako kazetaritzaren irudi pertsonal bat sortu du. Lagun onak gara, oso gatazkatsuak diren lekuetan elkarrekin lan egin dugulako.

Ez ditut gustuko haren inguruan esan diren gauza asko, herrialde honek duen akats handienetako batekin zerikusia dutenak: inbidiarekin. Esatera iritsi zaizkit Arturok Kroaziako gatazkan, Vukovarren —gerrako lekurik gogorrenetako batean—, elkarrizketak egiten zituen bitartean tiroketak edo bonbardaketak egoteko ordaintzen zuela. Hori absurdoa da, leku hartan bonbak etengabe erortzen zirelako.

Beste gauza bat da elkarrizke-

Elkarrizketa







ta bat egiteko bonbardaketa bat noiz gertatuko den zain egotea. Hori legezkoa da. Bonbak etengabe erortzen ari diren eremu batean zaudenean, elkarrizketa isiltasunean egin beharrean, tiroketak dauden unean egin dezakezu, egoeraren berri emateko eta gerraren erdian nola bizi den erakusteko.

Arturori, asko gustatzen zaio probokatzea. Badira ados ez gauden kontuak, baina haren izaera gustatzen zait. Ez da gaur gauza bat esan eta bihar iritziz aldatzen den horietakoa, gaur egungo gizarte puritano eta politikoki zuzen honetan.

Gaur egun, mugikor bat duen edonor gertaera baten lekuko izan daiteke. Beharrezkoa al da oraindik kanpoko fotokazetariaren figura? Zer eskaintzen du begirada profesionalak bertako lekukoenarekin alderatuta?

Gaur egun, mugikorra poltsikoan duen edonor gertaera baten lekuko izan daiteke. Irudi horiek manipulatuak edo eraldatuak ez badaude, beste dokumentu bat dira. Hala ere, lekuko baten eta prestatutako profesional baten artean aldea dago, prestakuntzak ikuspegi kritikoa eta irizpidea ematen dizkizulako.

Gazako kasuan, adibidez, Israelek urteak daramatza bertako fotokazetariak Hamasekoak direla leporatzen, baina baieztapen hori faltsua da. Duela hogei urte, Associated Press bezalako agentzietako profesionalek Gazako gazteak prestatu zituzten kazetari eta fotokazetari gisa, Israelek nazioarteko prentsari bidea itxiko ziola zekitelako.

> "Duela 30 urte nik ateratako argazkien egoera bera ikusi nuen. **Arazoa ez da desagertu, eta hori kezkagarria da"**

Gaur egun, prestakuntza hori jaso zuten bertako kazetari eta argazkilari palestinarrei esker dago informazioa. World Press Photo sariak ere irabazi dituzte, eta haiek gabe ez litzateke informaziorik egongo, beraz, bertako begirada ezinbestekoa da.

Hainbeste urtez gerrak dokumentatu ondoren, zer da oraindik ere ulertzen ez duguna gatazka armatuei buruz, irudiak etengabe ikusten ditugun arren?

Gaur egun, inoiz baino errazagoa da munduan zenbat gerra dauden jakitea, informazioa mugikorrean bilatzea besterik ez dago. Baina ez dugu horretarako interesik, eta horrela ez dugu ezer ulertuko. Gerra baten errealitatea albistegietako minutu bateko laburpenaren bidez ezagutzen dugula uste dugu, baina gerrak urteak eta hamarkadak irauten ditu. Afganistanen, adibidez, hamarkada luzez bizi izan dira gatazka armatuak, eta egungo egoera ulertzeko atzera begiratu behar da.

> "Ilargira iritsi gara eta gaixotasun ugari sendatzeko gaitasuna garatu dugu, **baina ez gara gai izan gerrari mugak jartzeko, honen atzean negozio handia dagoelako"**

Hori are harrigarriagoa da gizakiak lortu duen guztia kontuan hartuta: Ilargira iritsi gara eta gaixotasun ugari sendatzeko gaitasuna garatu dugu, baina ez gara gai izan gerrari mugak jartzeko, honen atzean negozio handia dagoelako.

Horregatik ezinbestekoa da gizarteak gaitasun kritikoa garatzea, gertatzen dena zalantzan jartzea eta agintariei azalpenak eskatzea. Kazetari gisa, nire helburua gizarte kritiko bat sortzea da, herritarrak hausnarketara bultzatzea, galderak egitera animatzea eta injustizien aurrean isilik ez geratzea.

Herriz herri

Azalera podcasta

"Espazioak inportanteak dira, **baina espazio horietan gertatzen dena da garrantzitsuena"**



Izaskun Alonso Saratxaga
LAUDIOKO KULTURZALEAK

"Gaur egungo araudia kontuan hartuta **une honetan ezin da Larragorriko parkea egin"**



Aingeru Olaguenaga Iza
OROZKOKO ZINEGOTZIA

Entzun gure podcastak www.aiaraldea.eus/nahieran atarian edo QR-a eskaneatu

Okondo

Rotaetxe Jauregia erosiko du Okondoko Udalak, erabilera publikoa izan dezan



Herrigunean dago Rotaetxe Jauregia. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Okondoko Udalak 535.423,98 euroko erosketa abiatzear dago, Rotaetxe Jauregiarena, alegia. Jon Escuza alkateak azaldu duenez, Udalaren erabilerarako espazioa izango da eta, printzipioz, Herritarrentzako Arreta Zerbitzua jarriko dute han (edo zati bat, gutxienez) eta udal fitxategia ere hara mugituko dute.

Udalburuak argitu du proiektua ez dagoela guztiz definituta, finantziazioa lortzeko urratsak egin dituztelako soilik momentuz. Horri esker 267.711,99 euroko dirulaguntza jaso dute Arabako Foru Aldundiko Obra eta Zerbitzuko Planaren deialdian.

"Aurreratu dezakeguna da HAZ puntu bat egongo dela herritarrek hara jotzeko behar badute eta udal fitxategia ere bidaliko dugula. Udal agiri guztiak ez dira joango jauregira, jakina, batzuk hemen behar direlako, baina udaletxea txiki geratzen ari da eta espazio librea behar dugu", aipatu du Escuzak.

Erabilera gehiago

Proiektua faseka egingo dela aintzat hartuta, Udalak aipatu du litekeena dela eraikinak erabilera publikoa hartzea etorkizunean, "agertzen diren beharren arabera".

Oraindik salmentan duen enpresak zehaztu du 884 m^2-ko azalera duela higiezinak eta 8.361 m^2-ko lursaila. Guztira, hiru solairu ditu eta XIX. mendean eraiki zuten.

Kokapenaren aldetik, herrigunetik gertuago dago, plaza eta frontoiaren artean eta herritar batzuentzat erosoagoa litzateke HAZ han egotea udaletxean baino.

Laudio

Ehun langile eta hamaika enpresaren arteko hartu emanak sustatu ditu Aiaraldeko enplegu azokaren bigarren edizioak

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Arrakastatsua izan da Aiaraldeko enplegu azokaren bigarren edizioa, antolatzaileen esanetan. Urriaren 9ko goizean egin zen ekimena Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan. Eskualdeko hamaika enpresek jarri zuten postua, eta banan-banan aritu ziren lan bila bertaratu ziren bizilagunekin hitz egiten. 80 pertsona zeuden izena emanda, baina jende gehiago bertaratu zen azkenean, ehun interesdunen langara iritsita. Pozik azaldu da Gorka Agirre Astola ekimenak izandako harrerarekin. Aiaraldea Lanean federazioko lehendakariak nabarmendu du Lanbiderekin lankidetza estuagoa egin dutela aurten, eta Kasinoko espazioa ere aproposagoa izan dela nabarmendu du. Gauzak hala, datorren urtean ere ekimena antolatzeko prestutasuna erakutsi du Agirrek.

Iaz egin zuten azokaren lehen edizioa, Laudioko Garapen Agentziako bulegoetan.

Laudio

Urte amaierara atzeratu dute Laudio Goikoako kiroldegiaren eraisketa



Gaur egun Kirikiñoren Basoa espazioaren parte da azpiegitura. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Abendu-urtarrileko oporraldian eraitsiko dute Laudio Goikoako kiroldegi zaharra, egitura arazoak direla eta. Alboan dagoen estalki txiki bat ere kenduko dute, amiantoa duelako.

Berez, bi lan horiek udako oporraldian egingo zituzten, baina atzeratu behar izan dute, horretarako hautatutako enpresak uko egin ziolako lanak egiteari. Hala azaldu du Ainize Gastaka alkateak Azalera podcastean, obraren ardura berez Jaurlaritzarena den arren.

Ikasturte hasieran garraio zerbitzuarekin egondako arazoak ere aipatu zituen tokiko gobernuburuak, berak dakiela konponduta daudela azalduta.

Kiroldegi zaharra hutsik egon zen denbora tarte handi batez, eta Kirikiño aisialdi taldearen Basoa proiektuaren parte izan da azken urteetan.

ELA sindikatuak iragan ikasturtearen amaieran salatu zuen Laudio Goikoa ikastetxeak amianto eta segurtasun arazo larriak dituela eta osasun prebentziorako neurriak hartu behar direla bertan. Garai berean protestak egon ziren gurasoen aldetik, ikastetxea ixteko Hezkuntza Sailak zituen asmoen harira.

Artziniega

Hilabete daramate Tubacex Taylorreko langileek greba mugagabean, eta zuzendaritzak negoziatzeko asmorik gabe jarraitzen duela salatu dute



Tubacexen Derioko bulegoen aurrean mobilizatu ziren langileak. **Tubacex Taylorreko langileak**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hilabete bat bete dute Artziniegako Tubacex Taylor fabrikako langileek greban. Iragan irailaren 9an abiatu zuten lanuztea, hitzarmena berritzeko helburuarekin. Izan ere, nabarmendu dutenez, 13 urte daramate lan-baldintzetan inolako hobekuntzarik izan gabe, eta epealdi horretan prezioek % 26 egin dute gora.

Grebalarien esanetan, zuzendaritzak hilabete osoa darama “bizitza seinalerik eman” eta “negoziatzeko borondaterik erakutsi gabe”. “Lotsagarritzat” jo dute hori, eta gaineratu dute “aurrekontu faltak” ez diela enpresako buruei eragin, nabarmenduz Artziniegako lantegiko zuzendaritza osatzen duen pertsona bakarraren soldata % 60 igo dela azken lau urteetan.

“Soldata igotzeko ez dago krisirik. Langileekin negoziatzera esertzeko, aldiz, isiltasuna eta mespretxua baino ez dago”, salatu dute beharginek.

> Langileek salatu dute lantegiko zuzendaritza osatzen duen pertsona bakarraren **soldata %60 igo dela azken lau urteetan**

Aiaraldean ere
gure gazteen buru
osasuna zaintzen dugu.
HITZ EGIN DEZAGUN!
asasam
buru osasuna
salud mental
944 03 46 90
www.asasam.org

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO
ALOKATU edo EROSI
INFRAGORRI BEROGAILUAK
Aire mugimendurik gabeko lekuetan azkar sortzen du beroa
Erosoa eta segurua
Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net
www.enkarki.net · @enkarki

Herriz herri

Areta

Aretako Kultur Etxeko taberna zerbitzua martxan berriz



Aretako bizitza sozialaren erdigunea da Kultur Etxea. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Taberna zerbitzua berrabiaraziko dute Aretako Kultur Etxean, herriko bizilagunen urte luzetako eskakizunari bide emanez. Duela zazpi urte eten zen taberna eskaintza bertan, eta orain, Udalarekin sinatutako esleipenari esker, 2027ra arte luzatuko da zerbitzua hasiera batean.

Tabernaren kudeaketak gaur egun Aretako Kultur Etxean erabilpenik ez duten espazioak biziberrituko ditu; hala nola, barra, sukaldea eta eraikinaren atzean dagoen lorategia.

Proiektuaren kudeatzaileek Aretako Kultur Etxea herritarren topagune izatea dute xede: "Gure premisa eta mugiarazten gaituena sinplea da, Aretako Kultur Etxea gune biltzaile bezala eta honen inguruan egiten den lanean sinesten dugu". Kultur Etxea "ondasun publikoa" dela aldarrikatu dute taberna proiektua abiaraziko dutenek, eta "mimoz" tratatzearen beharra azpimarratu.

Balioan jarri nahi izan dute ere Kultur Etxeak Aretako bizitza soziokulturala "artatu eta antolatzeko" berrogei urte luzez jorratu duen papera, eta helburu berdinari jarraituz heldu diote taberna zerbitzuaren kudeaketari. "Helburua ez da taberna zerbitzu bat eskaintzea soilik, Kultur Etxea Aretako bizilagunok merezi dugun topagune bizi, euskaldun eta belaunaldi artekoa bihurtzea baizik. Horretarako, atezaintza eta barra zerbitzua eskaintzeaz gain, agenda soziokultural anitza antolatu egingo da".

Euskararen presentzia

Taberna zerbitzu berriak euskara ardatz izango duela aurreratu dute ere, proiektua aurkeztearekin batera: "Euskara izango da proposamenaren lan-hizkuntza, eguneroko arretan, karteldegian, sare sozialetan eta errotulazioan erabiliko dena".

Urriak 30 irekiera

Kultur Etxeko tabernak urriaren 30an irekiko ditu ateak. Aurretik hainbat auzolan deituko dituzte espazioa atondu eta guztia martxan jartzeko, eta hauetara bertaratzeko deia luzatu dute. Oraindik ordutegi finkoa zehaztu ez duten arren, zerbitzua astelehenetik larunbatera eskainiko dela ziurtatu dute, goiz zein arratsaldez.

Amurrio

Amurriok ahalik eta tasa turistiko txikiena ezarri du

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arabako Foru Aldundiak tasa turistikoa garatzeko derrigortasuna ezarri zuen ekainean eta dagoeneko Amurrioko Udalak bete ditu etxeko lanak, arauaren hasierako onarpena eginda, hurrengo urteko urtarrilean indarrean egoteko. Hain zuzen, iraileko udalbatzan onartu zuen tokiko erakundeak nolako baldintzak izango dituen zergak. Berez, talde politikoek adostu dute ahalik eta tarifa txikienak kobratzea egunka, turismoa ez oztopatzeko.

Halaber, araudiak zenbait salbuespen aurreikusi ditu tasak ez kobratzeko: adingabeen, menpekotasuna duten pertsonen edota programa berezietan edo ikerketa batean parte hartzen dutenen edota indarrezko arrazoiengatik edota osasunagatik Amurriora joan direnen kasuetan. Horrez gain, sei egunez baino ez dituzte kobratuko tarifak, egonaldi luzeak ez zigortzeko.

Negozioen jabeek ordaindu beharko diote Udalari hiruhilean behin, likidazioa eginda.

Nahiz eta aldeko boza eman, EH Bilduk aipatu zuen etxebizitza turistiko tasa langara igo behar dela progresiboki (6,5 eurora). Izan ere, etxebizitzaren arazoak Amurrion bestelako erroak izan arren, mezu politikoa zabaldu daiteke horrela, oposizioko taldearen aburuz.



Urduña

Urduñako landa-bideen sarea mantentzeko eta hobetzeko lanei ekingo die Udalak



Hobetu nahi duten bideetako bat. **Urduñako Udala**

Testua
Garazi Cuadra Alvarez

Landa bideak atontzeari ekingo dio Urduñako Udalak. Modu horretan, irisgarritasuna hobetzea, segurtasuna indartzea eta Urduñako landa-eremuan bizi direnen zein bertan jarduten dutenen mugikortasuna erraztea bermatu nahi du tokiko erakundeak. Lanak datozen hilabeteetan hasiko dira eta udalerriko hainbat bide eta sarbidetan burutuko dira.

Aurreikusitako esku-hartzeen artean honako hauek daude: errekan behera eta ezkerraldetik Arbietoko zubiraino doan bidegorri zatia (1.110 metroko luzerakoa), Zedelikako zenbait landa-sarbide, Eukerriako eta Las Rinzaseko zerbitzu-bideak eta El Prado inguruko zenbait hobekuntza. “Esku-hartze horiei esker, aurrera egingo dugu gure hiriko landa-bideen sarea kontserbatzeko eta hobetzeko bidean; izan ere, azpiegitura hori funtsezkoa da eguneroko mugikortasunerako, baita udalerriko nekazaritza eta abeltzaintza-jarduerari eusteko ere”, adierazi du obra eta zerbitzuetako zinegotzia den Xabier Sobronek. Lan horiek egiteko, Udalak 60.000 euroko dirulaguntza izango du. Horrez gain, Ruzabalgo Batzarrari emandako beste 60.000 euroko laguntza ere kudeatuko du. “Lanak azpiegitura horiek hobetzean oinarrituko dira, erabilera-baldintza hobeak bermatzeko, joan-etorrien segurtasuna handitzeko eta etxebizitzetara, ustiategietara zein landa-lurretara iristea errazteko”, gaineratu du udal ordezkariak. Esku-hartze horiek Urduñako eremu gehiagotara zabaltzea aurreikusi dute. Modu horretan, landa-auzoen arteko konektibitatea indartu, bideen zorua hobetu eta hirian bizi direnen zein bertan lan egiten dutenen eguneroko bizitza erraztea lortu nahi du Udalak.

2.600 euro bildu dituzte Ametsgoienen aldeko azokan, eta zentro zibikoa sortu nahi dute



Zentro zibikoa sortu nahi dute Burgos kaleko eraikinean bertan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Arrakastatsua izan zen Ametsgoien elkarteak iragan urriaren 9ko arratsaldean eta urriaren 10eko goizean atondutako azoka. Dozenaka lagun igaro ziren bertatik, eta produktu ugari erosi ahal izan zituzten, prezio sinbolikoetan.

Modu horretan, 2.600 euro bildu zituzten antolatzaileek, proiektua finantzatzera bideratuko dituztenak.

Iragan martxoaren 1ean irekizituen ateak Ametsgoien etxeak Urduñako Burgos kaleko 4. zenbakian, egoera zaurgarrian dauden emakumeei harrera egiteko helburuarekin.

Espazioari bizitza ematen aritu dira elkarteko kideak ordutik hona, eta hurrengo urratsa zein den aurreratu dute: Ametsgoien zentro zibikoa sortzea. Aurreratu dutenez, "Urduñako elkarteen eskura" egongo da gune hori, tailerrak, formazioak, topaketak eta bestelako jarduerak egiteko.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
80 urte zurekin
PADI PROGRAMA
INPLANTEAK
3D ERRADIOGRAFIAK
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea LAUDIO (Araba) 946 723 100

Psikologia eta EMDR
Nekane Oribe Moreno
613 23 18 04
neibe psicología

Herriz herri

Aiaraldea

Aiaraldeko familia eta ikasleak antolatzen hasi dira Leioako Campusera garraio publiko zuzena eskatzeko

"Aiaraldetik Euskal Herriko Unibertsitatera autobusez" plataforma sortu dute hainbat guraso eta ikaslek, hezkuntzarako irisgarritasuna bermatu eta ikasleen bazterketa egoerarekin amaitzeko.

Testua
Garazi Cuadra Alvarez



Trena eta Bizkaibusa hartu behar dituzte Aiaraldeko ikasleek campusera iristeko. **Bizkaibus**

Egunero ehunka gazte mugitzen dira Aiaraldetik Leioako Campusera (EHU) ikastera, baina joan-etorriak oztopo handiak dakartza egunerokoan. Gaur egun ez dago eskualdea Leioako unibertsitatearekin zuzenean lotzen duen garraio publikorik, eta egoera horrek ikasleak diskriminatuta uzten dituela salatu du berriki sortutako "Aiaraldetik Euskal Herriko Unibertsitatera autobusez" plataformak.

Laudiotik Bizkaiko Campusera heltzeko bi bide nagusi baino ez daude. Lehenengoa garraio publikoa erabiltzea da. Horretarako C3 trena hartu behar dute Bilbora ailegatzeko, eta bertan Leioako Campusera doan Bizkaibusa hartu. Renfeko azkenaldiko atzerapen nahiz intzidentziek, ordea, asko luzatzen dute bidaia. Unibertsitatera garaiz iristeko, ikasleak bi ordu lehenago irten behar izaten dira etxetik gutxienez, garraio-aldaketak eginez eta tren zein Bizkaibusen ordutegiekin jolastuz.

Beste aukera, auto partikularra erabiltzea da. Ikasle gehienek ibilagilua partekatzen dute gasolinaren gastuak elkarren artean ordaintzeko. Familientzat karga ekonomiko handia dakar horrek (gasolina, autobideak...), eta ohartarazi dute logistika zein segurtasun aldetik ere ez dela irtenbide egonkorra, bestelako arazoak eragiten dituela argudiatuta: istripu-arriskuak, gidarien gaixotzeak, eguraldi txarra...

Plataforma antolatua

Mugimendua gurasoen arteko elkarrizketetatik jaio zen. "Duela 10 urte baino gehiago bazegoen Leioara heltzen zen autobusa, baina zerbitzua kendu zuten", azaldu dute plataformatik. Azken hilabeteetan 50 gazte baino gehiagoko zerrenda osatu dute zerbitzua bideragarria dela erakusteko.

Hasiera batean autobus pribatu bat kontratatzeko aukera aztertu bazuten ere, 300 euro inguruko kostuak eta erabilgarritasun mugatuak bideraezin bilakatu zuten aukera hori. "Ezin dugu onartu familiei hilean 300 euro eskatzea, are gutxiago ordutegi malgutasunik gabe", adierazi dute. Plataformako kideak eskualdeko hainbat udal zein alderdirekin harremanetan jarri dira konponbide baten bila, erakundeen arteko elkarlana ezinbestekoa dela gogoraraziz. Laudioko Udalaren kasuan, azaldu dute Ainize Gastaka alkateak hasieratik babestu zuela ekimena. Amurrioko Udalean zein EAJrekin izandako harremanetan, ordea, adierazi dute ez dutela babes zuzenik jaso oraingoz, eta bilerak eta kontaktua existitu badira ere, ez dutela konpromiso zehatzik lortu. Bestalde, Elkarrekin Podemoseko kideen bidez lortu dute eskaera Arabako Foru Aldundian aurkezteko aukera, eta EH Bilduk ere babesa adierazi dio ekimenari.

Plataformak argi utzi du helburua ez dela doako autobus bat izatea, baizik eta Gasteizko ikasleek dituzten dirulaguntza eta autobus publikoen antzeko zerbitzua bermatzea Aiaraldean ere, Arabako zergen bidez finantzatua: "Gure borroka autobusa betirako geratzea da, guztiontzat izatea".

Bi irtenbide

Arazoari erantzuna emateko, bi bide nagusi proposatzen dituzte plataformatik konponbide gisa. Alde batetik, gaur egun Ugaoko irteera duen Bizkaibuseko lineak ibilbidea Laudion hasi eta amaitzea. Horrela, maiztasuna handitzeaz gain, bidaia murriztuko litzateke, unibertsitate zentrora zuzeneko konexioa zihurtatuz. Bestetik, Gasteiztik atera eta Leioara doazen autobusak Laudion gutxienez geldialdi bat egitea proposatzen dute.

Informazio gehiago jasotzeko edo ekimenarekin bat egiteko, autobuslaudioleioa@gmail.com helbidea jarri dute herritarren eskura.

Herriz herri

Aiaraldea

Alokairu publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzak jaso dituzte Artziniegak eta Okondok



Valle Etxea da Artziniegan birgaituko duten eraikina. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

2,57 milioi euro bideratuko ditu Arabako Foru Aldundiak alokairuzko etxebizitza publikoa sustatzera eta Aiaraldeko bi egitasmo babestuko dituela egin zuen publiko atzo foru erakundeak.

Alde batetik, 960.000 euro jasoko ditu Artziniegako Udalak Valle Etxean duen egitasmoa osatzen joateko. Izan ere, hori ez da tokiko erakundeak jasoko duen lehen dirulaguntza. Artekale 16 kalean dagoen eraikina erosteko 356.250 euro bereganatu zituen jadanik iazko abenduan, Araba(n) Bizi Bedi programaren bitartez. Une horretan aurreratu zuten babes ekonomiko gehiago bilatuko zutela.

Zehazki, Valle Etxean, gehienez hamar etxebizitza gaitzea espero dute. Udalak egindako kalkuluen arabera, eraikina erabat birgaitzeak bi milioi euroko kostua izango du. Laguntzekin, inbertsioaren ia erdia bermatu dute; gainerakoa estaltzeko, Udalak Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza lerroak baliatuko ditu landa-eremuetako etxebizitzak berritzeko.

Duela aste batzuk, Alkatetzak bilera izan zuen Eusko Jaurlaritzako etxebizitza arduradunekin, ahalik eta laguntza-bide onena zehazteko.

Okondon etxebizitza bat

Bestalde, Okondoko Udalak ere 84.000 euroko dirulaguntza lortu du Arabako Foru Aldundiaren eskutik, Irabien kaleko 3. zenbakian kokatutako 85 m^2-ko udal-etxebizitza bat osorik birgaitzeko, gero alokatzeko.

Zehazki, tokiko erakundearen asmoa da gazteen emantzipaziora bideratzea higiezina. Esku-hartze osoaren kostua 114.677,40 eurokoa da eta Foru Aldundiaren laguntzak gastuaren % 73 hartuko du bere gain. Proiektuak espazioaren erreforma integrala aurreikusten du, egungo banaketa aldatu gabe, eta hainbat hobekuntza jasotzen ditu etxebizitzaren energia-eraginkortasuna eta erosotasuna handitzeko.

Aurreikusitako jardueren artean daude inguratzailea isolatzea, lurzoru erradiatzailea duen aerotermia sistema instalatzea, beroa berreskuratzeko gailua duen aireztapen sistema jartzea eta eraginkortasun handiko arotzeria jartzea, PVCko profilekin eta emisibitate txikiko beira bikoitzarekin.

Udalak 24 hilabeteko epea du obrak egiteko eta udalerriko gazteei etxebizitza hori eskura jartzeko.



* Promozioak 2026ko abenduaren 31ra arte balio du, gaur egun LABORAL Kutxa STa ez duten saltoki berrientzat. Android STrako eta ST birtualerako eskuragai eta Payclick zerbitzuarekin.

** Hileko fakturazioa 20.000 €-tik gorakoa bada, % 0,40ko deskontua aplikatuko da zenbateko horretatik gorako tartearen gainean. Enpresa-txartelaren bidez egindako hileko fakturazioa eta nazioarteko txartelaren bidez eragiketa ez-presentzialetan egindakoa hileko fakturazio osoaren % 10etik gorakoa bada, % 1,5eko tasa aplikatuko zaie eragiketa horiei guztiei. Kuotak saltokiko terminal (ST) baten mantentze-kostua hartzen du barne, eta terminal gehigarri bakoitzeko 5 €-ko komisioa kobratuko da.

LABORAL kutxa

Herriz herri

Aiaraldea

Arimen Gaua zukutzeko hamaika modu Aiaraldean



Laudion duela bi urte ospatutako Arimen Gaua. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urriaren 31k esanahi eta adierazpen anitzak ditu eskualdean eta guztiek izango dute tokia laster. Izan ere, erlijio katolikoak Arimen Gaua edo Gau Beltza irentsi zuen sinkretikoki eta beste ospakizun batzuekin egin bezala (udako solstizioa San Joan bilakatuta, adibidez), Domu Santu Eguna ezarri zuen, hildakoak oroitzeko.

Arimen Gauak edo Gau Beltzak, aldi berean, Halloween-ekin ere harreman estua dauka: Natura udaberrira arte lokartzen edo hiltzen dela ospatzen dute biek eta heriotza erdigunean jartzen dute, baina modu ezberdinetan azaleratzen da batean eta bestean.

Izan ere, ikus-entzunezko produktuak baliatuta (umeentzako telesaioak, filmeak...), hegemonia kultural kontsumista estatubatuarrak bere lege koloniala ezarri du Aiaraldeko kaleetan ere, eta erositako beldurrezko mozorroak eta plastikozko edozein formako apaingarriak eramatea zein goxoki azukredunak biltzea ohitura bilakatu ditu azken urteotan, Halloween-en bitartez.

Inbasioak, dena den, bira bitxia izan du eta balio izan du aldarrikatzeko jai hori jadanik existitzen zela Euskal Herrian, beste ezaugarri eta praktika batzuekin: etxean egindako mozorroekin edota kalabaza hustuekin (sasoiko fruitu horretan kandela bat jarrita). Izan ere, heriotza, benetakoa edo sinbolikoa izanda ere, beldurra sortzen du eta horrek jolaserako eta izutzeko tartea ematen du, umeekin gehienbat.

Denak Aiaraldean

Jakina, dena ez da zuria ala beltza. Griserako tarteak ere badaude adierazpen kultural horien artean, eta zaila da egingo diren ekintza batzuen eta besteen artean marra argia marraztea. Halaber, batean zein bestean parte hartuko dute askok, gehienbat haurrentzako gozamenerako antolatzen direlako gehienak. Eta Domu Santu Egunarekin ez bezala, zeinen hausnarketa eta oroimena diren ardatza, Arimen Gaua eta Halloween beldurra eta dibertimenduaren soka estuaren gainean dantzatzeko daude.

Dena den, azaroaren 1ean, adibidez, Domu Santu Eguna familian edo banaka ospatu ahal izateko hilerria irekita egongo da 24 orduz zenbait tokitan, Urduñan, kasu.

Taldean bizitzeko, aurreko egunetan eskulan saioak prestatuko dituzte umeekin hainbat tokitan: Luiaondon 23an 18:00etan Ludotekan kamiseta beldurgarriak egiteko 2 euroren truke. Artziniegan 24an 10 urtetik gorakoentzako tailerra deitu dute hariz egindako apaingarriekin gela atontzeko.

Orozkoko Gaztetxokoak jaia iragarri du 30ean plazan 18:00etatik aurrera. Egun berean Okondon liburutegian tailerra egingo dute bost urteko umeentzat, zeinetan parte hartzeko izena aurretik eman beharko den. Horrez gain, Arespalditzan hilaren 31n zintzilikarri beldurgarriak sortzeko tailerra egongo da,2 euroren truke.

Urriaren 31n Amurriok arratsalde osoko jarduerak hartuko ditu 17:30etatik aurrera. Ihes gela egongo da Gaztelekuan eta plazan tailerrak, txokolate jana, txaranga, photocalla eta DJa umeentzat. Helduentzat Despistados txarangak eta DJ Varrok girotuko dute herria gauez ordu txikiak heldu arte.

Egun berean Okondo Begirak karaokea egingo du 19:30ean Los Amigos del Swing taldearekin eta Aretan ere jai handia antolatu dute. Arratsaldean hainbat establezimendutan tailerrak egingo dituzte haurrekin eta musika, txokolate jana eta ipuin kontalaria egongo dira. Horrez gain, altxor bilaketa ere egingo dute ume nagusienentzat.

Bizkaibuseko 3613 lineak atzerapen handiekin funtzionatzen duela salatu dute Orozkoko erabiltzaileek



Salatu dutenez anbulategiko geltokiak sortzen ditu atzerapenak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Bizkaibuseko 3613 linearen funtzionamenduak ezinegona sortu du Orozkoko erabiltzaileen artean. Izan ere, Laudioko anbulatorio berrian geltokia jarri eta gero, atzerapenak gertatzen ari dira eta horrek arazoak sortzen dizkie autobusak hartzen dituzten ikasle zein langileei.

Berez, Orozko eta Bilbo lotzen ditu linea horrek eta atzerapenek udalerri guztiei eragiten badiete ere, berezikilarria da egoera Orozkon, udalerriko garraio publikoaren alternatiba bakarra delako, azaldu dutenez.

Beharginei ere kalteak sortzen dizkien arren, orozkoarrek azpimarratu dute goizero gazte askok Laudio, Amurrio edo Urduñako ikastetxeetara joan behar izaten dutela eta beste askok unibertsitatean ikasten dutela. Ondorioz, Aretara joan behar izaten dute trena hartzera eta hori galtzen dute zerbitzua atzeratzen bada.

Ordubeteko itxaronaldia

Orozkoko ikasleen gurasoek zabaldutako testuan aipatu dute atzerapenek erabat aldatu dutela zerbitzuaren maiztasuna: "Orain arte ordu erdiro ateratzen ziren bi autobusak, orain 10 edo 15 minutuko aldearekin iristen dira zenbait unetan. Gero ia ordubete pasa daiteke hurrengo autobusera arte".

Gainera, atzerapenak metatzen dira: "Autobus bat bere ibilbidearen amaierara berandu iristen denean, atsedenaldiak eta gidarientzat aurreikusitako txandak ere aldatzen dira. Batzuetan, hurrengo ibilbidea hasi ondoren aldatu behar izan da gidaria, are atzerapen handiagoa gehituz".

Anbulatorioarekin arazorik ez

Anbulatorioan jarritako geltokia atzerapenen iturburua bada ere, orozkoarrek argi dute hori ez dela arazoa eta zentzu guztia duela garraio publikoa haraino heltzea. Edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu diote mugikortasun arazoari ikuspegi zabalagoarekin erantzuteko. Zehazki, "ibilbide berria behin betiko finkatu aurretik beste aukera batzuk aztertzea eta mugikortasunaren azterketa globala egitea" eskatu dute.

Euren ustez, "azterketa horrek baloratu beharko lituzke ibilbide berriak behar dituen benetako denborak, maiztasunen banaketa, gidarien antolaketa eta, batez ere, aldaketa horrek egunero linea erabiltzen zutenentzat dituen ondorioak".

Erreportajea



AIARALDEARRAK BILBOKO ETXEBIZITZAREN ALDEKO KANPALDIAN: AZAROAREN 11KO GREBARI SO

Asteburuan jaso zuten Bilbon Arriaga plazan jarritako etxebizitzaren aldeko kanpaldia. Eskualdeko herritar batzuek ere parte hartu dute protestan eta bizipen berezia izan da eurentzat.



Testua eta argazkia **Aitor Aspuru Saez**

Madrilgo Sol enparantzan jarritako kanpaldiari erantzunda sortu zen Bilboko Arriaga plazakoa irailaren amaieran. Hasieran ekitaldi kamikazea izan zen, Bambi amurrioarrak eta Maialen Solaun laudioarrak azaldu dutenez. Elkarretaratze txiki batean kanpaldia egiteko deia zabaldu zuten eta hasieran dozena eskaseko egitasmoa jende gehiago erakartzeko gai izan zen.

Hiru astez kanpalekua lagun ugariren topagunea izan da eta bakoitzak etxebizitzari lotutako istorio ezberdin eta lazgarria eraman du: etxegabetzeak, arrazakeria, bazterkeria, LGTBIfobia... Euskal Herriko, Espainiako estatuko, Hego Ameriketako, Afrikako edota Errusiako kideak batu dira plaza bakarrean eta apurka-apurka kanping dendaz bete da espazio publikoa.

Aiaraldeko herritarrak ere ez dira falta izan protestan. Aipatutakoaez gain, Yogurinha Borovak edota Izaskun Sautuak ere jarri dute euren alea.

Egonaldi emankorra

Hiru asteko mobilizazioak aztarnak utzi ditu jende askoren artean. Manifestazio oso jendetsuak deitu dituzte, militantzian lehen urratsak egin dituzte, elkarbizitza eta elkarlana ezagutu dituzte eta erabakiak hartu dituzte. Esaterako, drogen kontsumoa (legalak zein legez kontrakoak) debekatu zituzten edozein aitzakia ez emateko poliziari eurak kanporatzeko eta izan dituzten erasoen aurrean modu egokian erantzun dute. Bizitza elkartea plazan agertu zenean, bota zuten mezu transfoboak zabaltzeagatik, gizonezko bat mehatxuka eta Francisco Franco goratzen bertaratu zenean, eutsi zioten eta urriaren 12an eskuin muturreko gazte talde bat eurengana joan zenean, aurretik landu zuten kolektibo antifaxistekin eta Herri Norte Taldeko kideak izan zituzten alboan edozein arazo eta liskar ekiditeko.

Dena den, kanpaldiak zerbait jaso badu, babesa izan da. Handik igarotzen zen herritarren aldetik zein inguruko tabernen eta negozioen aldetik.

Greba helmuga

Hiru asteko borroka masterra egin ondoren, dena den, akanpatuek erabakia hartu behar zuten, zirt edo zart, jarraitu edo ez, eta erabakia erdibidekoa izan da. Ostiralean manifestazioa egin eta gero, kanpalekua jasotzeari ekin zioten eta bildutako azpiegitura guztia merezi duten kolektiboei bideratu. Izaskun Sautuak aretarrak bihotza eta burua zituen erdibituta une horietan: "Kanpalekuak exijitzen duen azpiegitura lanek, mantenuak, otorduek, gaueko txanda latzek... Indar asko kentzen dizkigute eta ezin ditugu bestelako jarduera politikoak antolatu, baina niri pena ematen dit. Faltan sumatuko ditut hemen ezagututako hainbat lagun. Orain erronka da etxebizitzaren greba orokorrean parte hartzea eta ekarpena egitea".

> "Orain erronka da **etxebizitzaren greba orokorrean parte hartzea eta ekarpena egitea"**

Talde moduan eratuko diren galdetuta, Sautuak dio erabakia ez dagoela hartuta eta eztabaidatzen ari direla, baina borrokan jarraitzeko asmoa dutela. Izan ere, jatorri eta ideia anitzeko taldea osatu arren, konturatu dira ondo funtzionatzen dutela.

Gauzak horrela, azaroaren 11n egingo den greba orokorrean jarri dute hurrengo hitzordua.

Iritzia



Zer da taberna bat?

IMANOL ARBERAS

Gutariko bakoitzak ideia desberdin bat du. Batzuentzat topalekua, beste batzuentzat lantokia, beste batzuentzat etxe azpiko inkordioa, beste batzuentzat bakardadearen aurkako babeslekua eta infinituraino jarrai genezakeen.

Nik 39 urte daramatzat ostalaritzan. Lan gogorra da, beharrean baitzaude gainerakoak parrandan daudenean. Baina lan horrek badu zerbait oso ona, jendea.

Taberna batean lan egiten duzunean, izaera guztietako jendea ezagutzen duzu.

Bezeroak askotan familiakoak bezalakoak izatera pasatzen dira, eta batzuetan gaizkile gabeak. Garaiak aldatuz doaz, baina tabernek iraun egiten dute eta hala izan behar dute, gure bizitzaren parte dira, arrakastak ospatzen ditugu, baita tabernako porrotak ere.

Gure herri eta hirietako bizimodua ez da tabernarik gabe ulertzen, badakit jendea egongo dela horrela ez dela esango duena, baina ez da egia.

Herriko taberna bakarra ixten denean, zerbait hiltzen da, herriaren erdigune neuralgikoa hiltzen da.

Nik tabernak, haien funtsa, komunitateari egiten dioten ekarpena eta, batez ere, gure herriei ematen dieten bizitza azaldu nahi ditut.

Nik Arzak, Subijana eta guztiez hitz egiten entzuten dut, eta pentsatzen dut, ze meritua, baina ez dira nire ispilua.

Nire ispilua, auzoko tabernak dira, sartzen zarenean kafea jartzen ari zaizkizun tabernak, edo, zelan dago ama galdetzen dizuten horiek dira nire ispilua. tabernak dira, non, inor ez badago ere, zureetako bat baita.

Agian ez dituzte pintxo landuenak izango, agian zerbitzariak ez dira uniformez joango, agian azken erreforma pezetatan ordaintzen zen, agian ez dute Godellorik izango, edo beste edozein ardo modan dagoena, baina badute elkarrizketarako tarte bat, maite duzun bat, edo etxean sentiarazten zaituen beste edozer.

Nire lanbidea den bezalakoa ikusten dut, ez diot kentzen duen txarra. Ordutegi txarrak izaten ditugu, lanaldi oso luzeak izaten ditugu batzuetan, buruhauste asko izaten ditugu, gero eta zailagoa izaten da jendea topatzea lan egiteko, eta normala da, ulertzen erraza da.

Baina nik ez diot inori nire lana aldatuko.

Sinestezina den jendea ezagutu dezaket, eta horiek lan gutxi ematen dizute.

Eskualdea egitea ere herrialdea egitea da



ALMUDENA OTAOLA

Aiaraldea osatzen duten udalerrien batura baino askoz gehiago da. Errealitate sozial, ekonomiko eta humanoa da, eta eskualde izendatu baino askoz lehenago existitzen da. Udalerri batean bizi gara, beste batean lan egiten dugu, beste batean ikasten dugu, erosketak egiten ditugu, zerbitzuak erabiltzen ditugu eta gure eguneroko bizitzan ia existitzen ez diren muga administratiboak gaindituz erlazionatzen gara.

Eta, hala ere, erronka gehiegiri aurre egiten jarraitzen dugu, soilik udalen ikuspegitik.

Etxebizitza, garraioa, mugikortasuna, gure industriaren etorkizuna, adinekoentzako arreta, gure gazteentzako aukerak edo sustapen ekonomikoak erantzun partekatuak behar dituzte. Udalerri bakar batek ere ez ditu tresna guztiak. Elkarrekin erabakitzeko eta egiteko gaitasun handiagoa izan dezakegu.

Eskualdea egiteak ez du esan nahi herri bakoitzaren nortasunari uko egin behar zaionik. Aitzitik: indartzea esan nahi du. Interes komunak hala eskatzen duenean, estrategiak, baliabideak eta proiektuak parteka ditzakegu.

Baina eskualdea egitea ez da erakundeen zeregina bakarrik. Gutako bakoitzaren esku ere badago. Gure herriak indartzeko politikak eska ditzakegu, baina non erosten dugun, zein zerbitzu erabiltzen ditugun, zein saltokiri laguntzen diogun edo gure denbora eta dirua non kontsumitzen dugun ere erabaki dezakegu. Bizirik dauden kaleak, tokiko dendak eta gertuko zerbitzuak nahi baditugu, egon daitezen lagundu behar dugu.

Ezin dugu eskualde indartsu bat eskatu herritar gisa behar dugun guztia kanpoan balego bezala jokatzen dugun bitartean. Gure dendako erosketa bakoitza, hemen kontratatzen dugun zerbitzu bakoitza, aukeratzen dugun tokiko enpresa bakoitza eta laguntzen dugun proiektu bakoitza eskualdea egiteko modu txiki bat ere bada.

Politikak baldintzak sortu behar ditu: komunikazioak hobetzea, etxebizitza bultzatzea, enplegua babestea, gure enpresei laguntzea eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzea. Baina herritarrek ere onartu behar dute beren partea.

Gure gazteek beren bizi-proiektua garatzeko aukera izango duten Aiaraldea nahi al dugu? Kalitatezko enplegua, industria lehiakorra, merkataritza bizia eta zerbitzu nahikoak dituen eskualdea? Orduan ez da nahikoa eskatzea: denon artean eraiki behar dugu.

Gure herrietatik, Aiaraldetik, Euskadi egiten ari gara. Izan ere, eskualdea egitea gaitasunak batzea, proiektu bat partekatzea eta gure etorkizuna erabaki politikoen eta eguneroko erabakien mende dagoela onartzea da.

Eskualdea egitea, azken batean, herrialdea egitea da. Eta herria egitea ere gure esku dago.

> “Eskualdea egiteak ez du esan nahi herri bakoitzaren nortasunari uko egin behar zaionik. **Aitzitik: indartzea esan nahi du**”

Iritzia



Komunitatea

NEL SANTACRUZ

"Komunitatea posible egiten duten espazio publikoak aldarrikatu behar ditugu: **eskolak, aisialdirako guneak, jaiak, grebak"**

Komunitatearen ideia behin eta berriz agertzen da gizarte-mugimenduetan, baina askotan guztiak barne ez dituen "gu" bat erabiltzen dugu. Onartzea kosta arren, imajinatzen dugun komunitatea afinitatean oinarritu ohi da, eta kode politiko, ideologiko, sozial edo identitario jakin batzuekin bat ez datozenak baztertu egiten ditu. Hala ere, komunitatea gehien behar dutenak kanpoan geratzen direnak izaten dira: harremanetarako zailtasunak dituztenak, deserrotze-errealitateak dituztenak edo arautik kanpo bizi direnak.

Komunitatea eraikitzeak esan nahi du elkarrekin bizi gaitezkeela eta desberdintasunak kudeatu ditzakegula, egitura hierarkikorik erabili gabe. Garbitasun ideologikoari uko egitea dakar, eta beste batzuekiko harremanetik sortzen den eraldaketarekin "kutsatzeko" prest egotea. Gatazka nola kudeatzen dugun, marra gorriak non kokatzen ditugun eta kontraesanari nola heltzen diogun birpentsatzea eskatzen du. Bizikidetza ez da soilik errespetua edo tolerantzia: zaintza, entzutea, negoziazioa, proiektu komunak baizik. Talde desberdinek auzoko jaiak elkarrekin antolatzen dituztenean ikusten dugu, lagunak ez izan arren beste baten zain dagoen auzokidean, edo gure kolektiboetara hurbiltzen den pertsona bakarti horrekin hitz egiten dugunean.

Arlo komunitarioan lan egiteak ez da goitik pedagogia egitea, baizik eta beste errealitate batzuk ulertzera irekitzea, gutxieneko oinarri batzuei uko egin gabe. Enpatian konfiantza izatea, dogmatismoa atzean uztea eta konplexutasuna aukerak zabaltzen dituela aitortzea. Hizkuntza malgutzea eta testuinguruan kokatzea ere badakar: norbaitek gure kodeak ez ezagutzeak ez du esan nahi errespetuz komunikatu ezin denik. Hizkuntza inklusiboaren edo esamolde arrazista berrikustearen garrantzia azal dezakegu, exijentzian edo kondenzendentzian erori gabe. Beharrezkoa da ezjakintasuna deskriminalizatzea eta erasoetatik bereiztea. Guztiok baliabide berberak ez ditugula eta jarrerak alda daitezkeela konturatuz; bazterketak eta zigorrak ez dutela eraldatzen ulertuz.

Indibidualismoaren garaian bizi gara, "ni"-a handitzen duena eta zaurgarritasuna, nor bere burua zalantzan jartzea edo deserosotasuna igarotzea zailtzen duena. Horregatik, komunitatea posible egiten duten espazio publikoak sekula baino gehiago aldarrikatu behar ditugu: eskolak, aisialdirako guneak, herri-batzarrak eta kolektiboak, jaiak, grebak. Komunitatea hitz huts bat ez dadin, eusten digun praktika bat baizik.



Bihar ez dadila urrunegi egon

IRAIA PINEDO

Erabaki batzuek helduarora igarotzearen parte naturala izan beharko lukete: non bizi aukeratu, proiektu propioa eraiki edo etorkizuna segurtasunez irudikatu. Hala ere, gazte askorentzat, emantzipatzeko, ziurtasun baino kalkulu gehiago behar dira gaur egun.

Ia 24 urterekin, askotan pentsatzen dut horretan. Ez ezkortasunetik, baizik eta bere etorkizuna autonomiaz eraiki nahi duenaren kezkatik. Aiaraldean, beste hainbat lekutan bezala, etxebizitza eskuratzeak gure erabakiak baldintzatzen ditu eta proiektu pertsonalak birplanteatzera behartzen gaitu.

Ez dugu etsi behar, baina ez dugu konfiantza izan behar irtenbide magikoetan. Etxebizitza arazo konplexua da eta ez da egun batetik bestera konpontzen. Arauek bidea marka dezakete, baina garrantzitsuena da aukera errealak izatea.

Beharrezkoa da alokairu eskuragarria handitzea, lehen etxebizitza eskuratzeko aukera erraztea, etxebizitza hutsak mobilizatzea bideragarria denean, eta eraikuntza eta birgaitzea bizkortzea plangintzarekin. Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen arteko koordinazioa ere beharrezkoa da, bai eta politikei denboran eustea ere. Emaitzak aukeretan neurtzen dira, ez titularretan.

Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrak eta Arabako Foru Aldundiak neurri zehatzak aktibatu dituzte: Etxebizitzaren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren arloko Premiazko Neurriei buruzko Legea, neurri fiskalak, abal publikoak eta emantzipazioari eta alokairuari laguntzeko programak. Arazo guztiak konpontzen ez dituzten arren, baliabideak dira, gutxiesteko moduko aukerak ematen dizkiguten tresnak. Ateak irekitzen dituzte, bestela itxita egongo liratekeenak.

Aiaraldean, etxebizitzaz hitz egitea gure eskualdearen etorkizunaz hitz egitea da. Gure familietatik, lagunetatik eta hazi garen ingurunetik gertu jarraitu nahi dugu. Horretarako, kalitatezko enplegua, soldata duinak eta etxe eskuragarriak behar ditugu. Alde egitea aukera bakarra bada, biztanleria baino askoz gehiago galduko dugu.

Ez dugu ahaztu behar belaunaldi bakoitzak bere zailtasunei aurre egiten diela. Gure aiton-amonek ere familia bat aurrera ateratzeko, etxe bat eraikitzeko eta egoera desberdinetan, baina ez xumeetan, bidea irekitzeko ahalegina ezagutu zuten. Bere esperientziak iraunkortasunaren, lanaren eta etorkizuna eraikitzeko gaitasunaren balioa gogorarazten digu, baita baldintzak aldekoak ez direnean ere.

Gazteek iritzia emateko, parte hartzeko eta politika eraginkorrak eskatzeko eskubidea dugu, baina baita prestatzeko, lan egiteko eta aukerak aprobetxatzeko erantzukizuna ere. Erakundeen konpromisoa eta ahalegin pertsonala ez dira kontrako bideak: elkarren beharra dute.

"Erakundeen konpromisoa eta ahalegin pertsonala ez dira kontrako bideak: **elkarren beharra dute"**

INOR ATZEAN GERATU EZ DADIN, EZ ITXARON

“Gazte bat gaizki dagoenean ez da itxaron behar bakarrik geratu arte”. Esaldi hori lematzat hartuta sortu zuen Asasamek Gazteekin programa duela bi urte. Ordutik hona 17 gazte igaro dira bertatik, eta 50 talde-jarduera baino gehiago antolatu zituzten iaz.



Testua eta argazkiak
Txabi Alvarado Bañares

Urtero bezala, jarduera ugari antolatu ditu Asasam elkarteak Buru Osasunaren Nazioarteko Eguna dela eta. Iragan igandean egin zuten martxa sozialaren VII. edizioa, eta beste hainbat zita dituzte prestatuta datozen aste eta egunetarako.

Aurten haur, gazte eta nerabeengan jarri nahi izan dute begirada batez ere. Elkarteko kideen hitzetan, “gazte izatearen esentzia izan beharko litzateke zer garen eta zer izan nahi dugun deskubritzea, baina zoritxarrez gaur egun gazte askok zalantzak ikusten dituzte euren etorkizunari dagokionez”.

Arrazoi material ugari detektatu dituzte horren atzean. “Lan prekarioak daude, etxebizitza duin bat lortzeko zailtasunak, soldata baxuak, presio akademikoa, sare sozialek ere isolamendura eramaten dute... faktore hauen eta beste hainbaten ondorioz zaila egiten da gazteek euren bizi proiektua aurrera ateratzea”, azaldu du elkarteko kide eta langilea den Izaskun Aranzastik.

Bi urteko ibilbidea

Horren aurrean, Asasametik argi dute berehala esku hartu behar dela gazte bat gaizki pasatzen hasten denean, bakarrik geratu baino lehen. Horretarako abiatu zuten Gazteekin programa duela bi urte, sumatzen zutelako eskualdeko gazteengan buru osasun arazoen areagotze bat ematen ari zela, pandemiaren ostean batez ere.

Proiektu pilotu moduan sortu zen programa, 15-26 urte bitarteko gazteei "ongizate emozionala" bermatzeko helburuarekin. Esku-hartze indibidualak egiten dituzte, baina komunitatean, “familiekin, ikastetxeekin eta beste agente batzuekin” elkarlanean.

“Tresnak eta babesa” ematen dizkiete senideei, Aranzastiren esanetan: “Askotan egoera berriak dira eurentzat eta ez dakite nola kudeatu. Galduta sumatzen dute euren burua, batzuetan buru osasun arazoak adin honetan egon daitekeen jarrera txarrarekin nahasten delako. Horregatik, gaixotasuna eta bere sintomak azaltzen dizkiegu, etxeko dinamika hobetzeko".

2024an sortu zuten Gazteekin programa, sumatzen ari zirelako buru osasuneko arazoak areagotzen ari zirela gazteen artean

"Kofiantzazko zirkulu bat"

Programan parte hartzen duten gazteekin, aldiz, talde-ekintzak egiten dituzte “gune seguru bat sortu eta elkar ezagutu daitezen, pertsona asko isolatuta daudelako eta ez dutelako babes-sarerik”. Elkarteko hezitzailearen hitzetan, “konfiantzazko zirkulu bat” sortzen dute horrela, gazteei ahalbidetzen diena euren kabuz ere ekintzak egitea “Asasameko jardueretatik harago”.

Julene Rodriguez da programan parte hartzen duen gazteetako bat. “Zinemara edo museoetara goaz, eta tailerrak ere egiten ditugu, sexualitateari edota trebetasun sozialei buruzkoak

kasu”, azaldu du. Pozik dago esperientziarekin: “Taldean gaudenean gainontzeko kideek lagundu egiten didate nire arazoak konpontzen. Esku hartze indibidualetan, aldiz, Izaskunek lagundu egin nau nire kabuz kudeatu ezin nituen gauzak bideratzen: Udalera joan, dokumentazioa bete...”.

Modu horretan, “askeago” nabaritzen da Rodriguez, “konfiantza gehiagorekin”. Eta pozik dago baita sortutako lagun-sarearekin: “Asteburu batzuetan programako kideen artean geratzen gara gure kabuz, planen bat egiteko”.

Modu horretan, Asasamen beste kezka nagusietako bati ematen diote bide: isolamenduaren aurka borrokatzea. “Pertsona bat jendez inguratuta egon daiteke eta bakarrik sentitu. Zuk telefonoa ehunka kontaktu eduki ditzakezu baina txarto zaudenean edo laguntza behar duzunean ez izatea nor deitu”, azaldu du Aranzastik. Horregatik uste du garrantzitsua dela "komunitate bat sortzea”, Gazteekin programan dauden pertsonen artean sortutakoa bezalakoa.

17 gazte igaro dira azken bi urteetan programatik, eta iaz 50 talde-jarduera baino gehiago egin zituzten

17 gazte igaro dira azken bi urteetan programatik, eta iaz 50 talde-jarduera baino gehiago egin zituzten. Elkarteko kideen ustez, kopuru horiek erakusten dute eskualdean badagoela horrelako programen beharra, eta baita “baliabide egonkor eta hurbilak" izatekoa ere.





Izaskun Aranzasti eta Julene Rodriguez

Gazteekin programako langilea eta erabiltzailea

“Gazte bat txarto pasatzen hasten denean **ezin dugu itxaron bakarrik geratu arte”**

Entzun elkarrizketa osorik www.aiaraldea.eus/nahieran atarian edo QR-a eskaneatu



Buru osasunaren aldeko martxa sozialaren VII. edizioa antolatu duen Asasamek iragan igandean. **Aiaraldea.eus eta Rosa Saez Orive**

Elkarrizketa



“Liburua tresna psikologiko bat **da** gazteekin hitz egiten hasteko”

LAUDION HAZI ZEN **HAKIMA A. CASTRO** (MAROKO, 1980) BAINA URTEAK DARAMATZA KATALUNIAN BIZITZEN. LÍA Y EL SECRETO DE LA CIUDAD DE CRISTAL, ARGITARATU DU, GAZTE ETA NERABEEN ARTEAN PANTAILEN GEHIEGIZKO.. ERABILERA PREBENITZEA XEDE.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Entsegua baino, ipuin formatua aukeratu duzu liburua osatzeko. Zergatik?

Nire buruari galdetzen nion ea zein zen gazteengana heltzeko modurik egokiena, esan gabe zer egin behar duten. Liburuek badute boterea, bertan agertzen diren pertsonaiekin eta egoerekin identifikatzen garelako. Horregatik erabaki nuen istorio bat kontatzea, gazteei zer egin behar duten esan gabe, eurak euren kabuz konturatu zitezen geratzen ari zaienaz.

Helburua bete duzula esango zenuke?

Ez nuen imajinatzen heldu naizen puntura iritsiko nintzenik. Liburua nire Master Amaierako Lanetik sortu zen. Nire irakasleari asko gustatu zitzaion ipuina, eta argitaratu nezakeela iradoki zidan. Justo une horretan lehiaketa bat abiatu zuen Kataluniako Psikologoen Eskola Ofizialak. Kontakizuna aurkeztu eta bigarren saria lortu nuen. Nirekin harremanetan jarri ziren gero, Sant Jordin aurkeztu nezan. Niretzat ez da salmenta kontua, liburuak ez direlako ezta asko saltzen. Niretzat garrantzitsuagoa gazteek irakurri ostean ematen didaten iritzitik. Duela egun batzuk 12 urteko neska batek marrazki bat bidali zidan, eskerrak emanez, orain garrantzia gehiago ematen ari zielako inguruan zituen pertsonei, Liaren istorioan eraginda. Mezu horiek dira niri axola didatenak.

Nire kontsultetan ere erabili dut. Liburua oparitzen diet mugikorra asko baliatzen duten gazteei, eta erronka bat planteatzen diet: hurrengo saiorako Liaren sekretua topatzea. Motibazioa sortzen die horrek, eta hori abagune bat da eurek mugikorrarekin sentitzen dutenaz hitz egiten hasteko.

Liburua baliabide bat da, beraz.

Erabat. Tresna psikologiko bat da gazteekin elkarrizketa bat abiatu ahal izateko. Izan ere, gazte askori zer moduz dauden galdetzen zaienean, ez dakite. Dakitena da mugikorra erabiltzen dutenean lasaitu egiten direla. Niretzat arazoa ez da horrenbeste erabilera-denbora, baizik eta zein zen erabiltzearen atzean dagoen arrazoia: zeozer ekidin nahi dutelako, gaizki sentitzen direlako, aspertuta daudelako, antsietatea dutelako... hori argitzen dugunean aztertu dezakegu nola egin aurre.

Horren guztiaren aurrean, zer egin daiteke?

Hezkuntza da niretzat garrantzitsuena. Haur hauek mundu digitalaren barruan jaio eta bizi dira, baina ez diegu bertan aritzeko hezi, guk geuk ere ez dugulako bertan aritzeko hezkuntzarik jaso. Horregatik nahi dut hezkuntza emozionalari buruzko programa bat garatu ikastetxeentzat, pantailen erabilera prebenitzeko; ez pantailak debekatzeko, erabiltzen irakasteko baizik.

Oso ondo dago mugikorrarekin jolastuz gozatzea, arazoa da hori egiten duzunean duzun arazo batean ez pentsatzeko.

Familiek ere jaso behar dute heziketa. Haurrek ikusten duten lehen gauza da gurasoak mugikorra ikusten daudela toki guztietan, eta etxean ikusitako hori da gero egingo dutena. Guraso askok esaten dute seme-alabei ez dizkietela pantailak uzten. Eta orduan nik galdetzen diet: “Eta zuek?”.

Babestutako espazioa



IRAGARKI POLITIKOA | Babeslea: EUSKAL HERRIA BILDU | Gardentasun-oharra: gardentasuna.ehbildu.eus/p/REM-EHB-26-6

Hurrengo geltokia→

Iraia Martin

#13



18 urte besterik ez ditu azken saioko gonbidatuak eta hala ere, esperientzio oso potenteak daramatza bizkarrean.

Elikaduraren nahasmendu baten ondorioz bi aldiz egon da psikiatriako unitatean ospitaleratuta. Esperientzia horiek guztiak liburu batean bildu zituen eta horiek gurekin partekatzera etorri da

Iraia Martinen gogokoenak

→ *Liburu bat?*
Maria Martinezen *Cuando no queden más estrellas que contar.*

→ *Abesti bat?*
Aitana abeslariaren *Chica perfecta..*

→ *Film bat?*
Vaiana Disney pelikula.

→ *Aiaraldeko txoko bat?*
Gorobel mendilerroa edo Maroño.

→ *Kultur espazio bat?*
Kalejira, pandero eta trikiarekin batera.

→ *Errezeta bat?*
Gazta tarta edo euskal pastela.

→ *Superbotere bat?*
Telegarraioa, azkar mugitzeko erraztasuna izateko.

→ Bideo podcasta osorik gure Youtube kanalean.

“Sare sozialetan jendeak alde perfektua erakusten du soilik, eta horrek konparatzera eramaten gaitu”

“Pisikiatrikoan egotea plus bat izan da nire sendatze prozesuan”

“Gorputzen inguruan egiten ditugun komentarioekin kontuz ibili behar gara, ez dakigu horren atzean zer dagoen”

Parkean eta Elexalde kaleko lokalean erakusketa bana egingo ditu Kulturlabek

Testua
Aitor Aspuru Saez

Parkea Kultura Topagunearen inugurazioan eta bultzadan parte hartu eta gero, Kulturlabek ez du bere jarduna eten eta urrian bi ekitaldi deitu ditu. Bat parkean bertan izango da eta bestea Elexalde kaleko lokalean.

Kultura Etxeko Berrikuntza Aretoan *Gauean dir-dir* egiten dute (Brillan en la noche) bideo-instalazioa jarri du ikusgai Jose Ramon Ais artistak. Zehazki, Aisek Kuban egindako egonaldiaren emaitza da ikus-entzunezko proiektua.

Sortzaile laudioarrak 90eko hamarkadatik hainbat erakusketa kolektibotan parte hartu du eta berak bakarrik ere bederatzi aldiz eskaini du bere lana. Gainera, beka ugariren irabazlea izan da hamarkada hauetan.

Artista ezagutzeko aukera paregabea egongo da urriaren 22an, egileak berak azalduko baitu proiektua nola garatu zuen, 18:30ean Berrikuntza Aretoan bertan izango da hitzordua eta abenduaren 23ra arte bisitatu ahalko da.

Horrez gain, Kulturlab egitasmotik Elexalde kalean duten lokala ere elikatu dute eta Arantza Escondrillas izan da hautatua horretarako. Laudioarrak margoketa eta marrazketa uztartuko ditu eta urriaren 23tik aurrera bisitatu ahalko da bere lana.



‘Izurritea’ film laburra grabatu dute Zollon



Filmaren grabaketa Zollon. **Zerikusi**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Izurritea film laburreko taldea Zollon eta Zeberion aritu da grabaketa lanetan.

Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du eta landa eremuko tabernari baten egunerokoa jarraitzen du, bezeroak ohartu baino lehen, bere lokalean darabilen izurritearekin akabatzen saiatzen den bitartean.

Iker Maguregi da zuzendaria eta gidoilaria eta Olatz Beobide antzezle protagonista. Oihan Puente, Olatz Ganboa, Alfonso Díez, Mikel Maguregi, Pako Revueltas, Gaizka Chamizo, Tasio Bilbao, Peio Bilbao eta Ander Jimenez ere agertzen dira pelikulan.

Astebetean Faktorian garatutakoa taularatu du Paskal Irigoyenek



Nafarroa Behereko musikariak kontzertua eskaini zuen Faktorian. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Astebete igaro du Paxkal Irigoyen Etxeberri musikariak Kultur Faktoriako Sormen Egonaldian. Laudioko Industriagunean kokatutako euskararen pabilioian bizitzen egon da Nafarroa Behereko sortzailea, eta bertan garatu duen sormen prozesuaren emaitza plazaratu zuen iragan urriaren 18an, dozenaka herritarren aurrean.

Irigoyenekin, dagoeneko lau dira ikasturte berrian Kultur Faktoriako Sormen Egonaldietan parte hartu duten sortzaileak. Azaroaren 21ean amaituko da zikloa, Arte eman festarekin.

Kirola

GOROBEL IBILALDIA XL NEURRIRA



Gorobel Ibilaldiaren edizio borobila ospatuko dute datorren azaroaren 1ean. Aiaraldeko mendi martxa sonatu eta kuttunenak 40 edizioen langa gainditu du, eta Mendiko Lagunak taldeko kideek kopuru horren neurrira dagoen ibilbide berezia prestatu dute, XL tamainakoa. Baina zein da martxaren arrakastaren sekretua?



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**
Argazkiak **Mendiko Lagunak Taldea**

Aiaraldeko mendizaleen egutegian gorriz markatutako hitzordua da Gorobel Ibilaldia. Meritu propioz bilakatu da Aiaraldeko zein Euskal Herriko mendi ibilaldirik kuttunetako bat, eta urtez urte ehunka mendizale elkartu ditu Gorobel mendilerroan barrena. Aurten berrogeigarren edizioa ospatuko du datorren azaroaren 1ean, eta neurri bereziko martxa antolatu dute Mendiko Lagunak taldeko kideek.

Martxaren hastapenak

Garobel hasieran, Gorobel gerora. 1986an antolatu zuen Mendiko Lagunak taldeak Gorobel Ibilaldiaren lehen edizioa. Ordurako mende laurdeneko historia zuen klub amurrioarrak, eta Euskal Herrian aitzindaria izan zen egitasmoa. Izan ere, gaur egun mendizaleen egutegian erabat integratuta egon arren, 1980ko hamarkadan, oraindik ere ez ziren batere ohikoak mendi martxa neurtuak. Nekez imajina zezaketen orduan zertan bilakatuko zen lehen edizio hartan 50 lagun eskas elkartu zituen ekimen hura.

Lehenengo edizioetan Artomaña izan zuten ibilaldiaren abiapuntu. Autobusak antolatzen zituzten Juan Urrutia enparantzatik Arrastaria bailararaino, eta bertan egiten zuten izen-ematea mendizaleek.

Martxaren ibilbideak, parte-hartzaile kopurua, mendiaz gozatzeko modua bera... Gauza asko aldatu dira 40 edizio hauetan. Baina badira ere hastapenetatik Gorobel Ibilaldiaren zimendu izan diren mugarriak. Goizale Aterpea izan da horietako bat. 1967an eraiki zuten Ponatako pagadian kokatutako aterpea, eta edizioz edizio Gorobel Ibilaldiaren epizentroa izan da, lehenengo ediziotik bertatik.

Martxaren helburu fundazionalek ere bere horretan jarraitzen dutela aldarrikatu du Andoni Elejaldek, egun, Mendiko Lagunak Taldeko lehendakariak: "40 edizio hauetan helburua berdina izan da beti, mendi-festa bat antolatzea eta mendiko giroaz disfrutatzea".

Mende berriarekin batera Euskal Mendizale Federazioak sustatutako Euskal Herriko Iraupen Luzeko Zirkuitura batu zen Gorobel Ibilaldia, eta horren parte izan da gaur egun arte.

> "40 edizio hauetan helburua berdina izan da beti, **mendi-festa bat antolatzea eta mendiko giroaz disfrutatzea"**

Mendizaleak mendi-gosez

Urtero ehunka herritar batzen dituen hitzordua da Gorobel Ibilaldia. Kirol hitzorduak azkar utzi zituen atzean lehen urteetako kopuru apalagoak, eta XXI. mendeko lehen hamarkadako edizioetan bi mila lagunetik gora elkartzera iritsi ziren.

Gaur egun kopurua mugatu egin dutela azaldu du Elejaldek, antolakuntzaren eta natur ingurunea

beraren jasangarritasuna bermatze aldera: “Mila parte-hartzaileetan jarri genuen muga, eta ibilaldi txikia egiten hasi ginenean 200 izen emate gehiago onartzera igaro gara”. 1.200 mendizale dira beraz, aurtengoan ere, Amurrion batzartuko direnak. Elejaldek balioan jarri du izen emateen ehuneko oso handi bat Amurriokoa izatea: “Esaten da Amurrioko jende asko urtean behin doala bakarrik mendira, Gorobel Ibilaldian hain zuzen. Niretzako oso aipagarria da, eta ilusioa egiten dit, martxak herrian hain harrera ona izateak”.

Datu benetan esanguratsua da inondik inora. Aurtengo 1.200 parte hartzaileetatik 440 Amurriokoak dira, % 36 guztira. Aiaraldeko gainerako udalerrietako parte hartzaileak kontuan hartuta % 54ra iristen da tokiko mendizaleen kopurua; erdia baino gehiago.

Aurtengo 1.200 parte hartzaileetatik 440 Amurriokoak dira; Aiaraldeko gainerako udalerriak kontuan hartuta **%54ra iristen da tokiko mendizaleen kopurua**



Arrakastaren sekretua

Arrazoi asko egon daitezke harre-









Kirola



ra bero horren atzean. Akaso, Mendiko Lagunak taldeko kideek adin eta maila guztietako mendizaleen neurrira egokitutako menua prestatzen dutelako urtero: Ibilbide nagusia, ibilbide ertaina eta ibilbide txikia. Hirurak Aiaraldeko mendi-ingurunez gozatzeko pentsatuak.

Goizale Aterpeko horniketa puntuko eskaintza bada Gorobel Ibilaldira hurbiltzen den mendizale orok goraipatzen duen beste alderdietako bat. “Ez dakit Euskal Herrian horrelako horniketa duen martxarik badagoen: makarroiak, arroz-esnea, haragi gisatua…”, aldarrikatu du Elejaldek. Klubeko boluntarioek bi egun ematen dituzte aterpean sartuta dena prestatzen,

“Ez dakit Euskal Herrian horrelako horniketa duen mendi martxarik badagoen: **makarroiak, arroz-esnea, haragi gisatua…**”

azaroko eguraldi hezeari aurre egiteko oasi txiki bat eraikitzen. “Mundiala da egiten duten lana, nekez eskertuko diegu ekarpena”, adierazi du Mendiko Lagunak taldeko presidenteak.

Mendilerroak berezkoa duen edertasunari eta Goizale Aterpeko berotasunari, antolatzaileek ibilaldiari jarritako gatza eta piperra gehitu behar zaio ere. Txalaparta, adarra, txistulariak… etengabeko konpainia dira. Mendizale batek nekez ahaztu dezake Gorobeleko ataka bat ttakun-ttakun erritmoan zeharkatu zuen unea. Kontrol puntuetan mozorrotutako boluntarioak azaltzen dira maiz, Gorobeleko bideak betetzen dituzten mendizale fosforeszenteak izaki mitologikoekin, anti-doping puntuetako medikuekin edota elurrik gabeko eskiatzaileekin nahastuz. “Edizioren batean kobazuloren bat zeharkatu dugu ere, esperientzia ahalik eta gozagarriena izan dadin”, oroitu du Elejaldek.

Lan boluntarioa

“Martxa ez da bi lagunen artean antolatzen, jende asko dago atzetik; bai ibilaldiaren egunean bertan baita aurreko aste eta hilabeteetan ere”. Orotara, boluntario lanetan elkartzen diren 80 lagun baino gehiago zenbatu ditu Elejaldek. Eta lana egon, badago sobera.

Prestaketa lanak urte hasierarekin abiatzen dituzte. Lehenengo eginkizuna baimenak tramitatzea izan ohi da. Gorobel mendilerroan Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek ez ezik, Gaztela Leongo administrazioek ere badituzte eskumenak, eta horrek asko korapilatzen ditu tramite administratibo guztiak. Premiazkoa izan ohi da ere, proposatutako ibilbideak horrela eskatzen badu, autobus zerbitzua denboraz kontratatzea. Duela urte gutxi tren zerbitzu berezia kontratatu zuten mendizaleak Amurriotik Urduñara eramateko.

Eguna ate joka dagoenean hasten da benetako saltsa: Horniketa-puntuetako material dena pentsatu eta, noski, ibilbidea markatu. “Martxa aurreko ostiral eta larunbatean egiten dugu marka-

Kirola











Garobel Ibilaldia izenarekin sortu zen gaur egun Gorobel Ibilaldi gisa ezagutzen dugun martxa entzutetsua. Hasieran distantzia luzeko ibilbide bakarrak osatzen zuen mendi-hitzordua, 40 kilometro ingurukoa. Gerora batuko zitzaion bigarren martxa laburrago bat, eta, azkenik, 2018tik aurrera Gorobel Ibilaldi Txikia.

Kirola

keta, eta igandean ibilaldia hasi aurretik dena errepasatzen dugu".

Amaigabea da martxaren egunean bertan egin beharreko lanen zerrenda: Dortsalak banatzea, marken birpasa egitea, bidegurutzeak zaintzea, kontrol puntuak kudeatzea, ibilaldia bera ixtea, sare sozialak kudeatzea, markak jasotzea, oroigarriak banatzea...

Elejaldek Juan Urrutia plazatik bizi izan ditu Gorobel Ibilaldiaren azken edizioak. Boluntario guztien, Gurutze Gorriaren eta Babes Zibilaren koordinazioaz arduratu da bertatik: "Mendizaleak Amurrioko plazatik ateratzen diren momentutik plazara bueltatzen diren arte gure ardurapean daude, eta guk bermatu behar dugu haien segurtasuna". Aurten, gainera, lan-tresna informatiko berria garatu du, martxaren jarraipen xehea egin ahal izateko.

"Mendizaleak plazatik ateratzen diren momentutik plazara bueltatzen diren arte gure ardurapean daude, **eta guk bermatu behar dugu haien segurtasuna"**



Hamaika bizipen

Gorobel Ibilaldiaren antolakuntzaren atzean hamaika bizipen metatu dira berrogei edizio hauetan. Une zailak eta une goxoak. Istripuak, galdutako mendizaleak... Aroko atakan behera erori zen horniketa punturako materiala zeraman Mendiko Lagunaken jeep-a. Hainbatetan bertan behera utzi behar izan dute ibilaldia, azkena 2020. urtean; COVID-19aren pandemiak eragindako osasun egoerak ezinezko egin zuen XXXIV. edizioa aurrera ateratzea. Urte bete lehenagoko edizioa ere bertan behera geratu zen, orduko hartan elurraren ondorioz. "Elur kota 800 metrotan zegoen eta ibilaldia bertan behera geratu bazen ere egun oso bizia izan zen lanean ari ginen boluntario guztiontzat: mendilerroan zeuden kideak jaitsi behar zian genituen, marka guztiak jaso... berezia izan guztiz", oroitu du Elejaldek.

Denboran atzerago eginda, 2011n ere ez zen Gorobel Ibilaldia Juan Urrutia enparantzatik abiatu, eguraldi makurra zela eta: "Ibilbideak diseinatzen ditugunean beti aurreikusten dugu horrelakoak gertatu daitezkeela, eta saiatzen gara alternatibak atontzen, baina eguraldiaren kontra ez dago zer eginik".

XL neurrira

Dagoeneko zerura begira dira Mendiko Lagunak taldeko kideak, azaroaren lehenak zer ekarriko zain. Egun horretan ospatuko dute ibilaldiaren berrogeigarren edizioa, eta zenbakiari keinu eginez XL tamainako ibilbidea prestatu dute. Martxa nagusiak 60 kilometroko luzera izango du eta alderik alde zeharkatuko du Gorobel mendilerroa. Bidean mendilerroa osatzen duten gailur guztiak zapalduko dituzte, Txarlazotik Aro mendiraino. Hori gutxi ez eta mendizaleek birritan igo beharko dute mendilerroa; Urduñako mendatetik aurrena eta Bedarbideko bidetik gerora. Goizale aterpean atseden hartuta Senda Negra bidetik egin beharko dute itzulera bidea Amurriora, ia 3.000 metroko desnibel positiboa pilatuz. Inoiz egin den Gorobel ibilbiderik luzeena izango da honakoa, 2022ko 49 kilometroko errekorra aise gaindituz.

Bestelako neurrien bila dauden mendizaleek ere izango dute nola gozatu azaroaren 1eko hitzorduan. Ibilbide ertainak 27 kilometroko zirkuitua osatuko du, Amurriotik Tologorrira eta buelta. Azkenik, Ibilbide txikiak Babio mendira igoko ditu mendizaleak.

Berrogei edizioren ostean sasoi betean jarraitzen du Gorobel Ibilaldiak, fresko, gazte eta alai. Inolako txapelketarik gabe tarteko, Aiaraldeko mendi-ingurunez gozatzeko aukera eskainiz adin eta maila guztietako mendizaleei.







“Gorobel Ibilaldiko sukarra kutsatu dugu Ipar Euskal Herrian”

RAFAEL VALDIVIELSO URRESTI (Biarritz, 1948) BAIONAKO AUÑAMENDI ELKARTEKO KIDEA DA. URTEAK DARAMATZA GOROBEL IBILALDIAN PARTE HARTZEN; IPAR-EUSKAL HERRIAREN ETA AIARALDEAREN ARTEKO ZUBIAK ERAIKIZ.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Urteak dramazue Gorobel Ibilaldian parte hartzen, nola izan zenuten martxaren berri?

Ni Auñamendi Mendi Taldeko kidea naiz. Baionako kluba da, 1972an sortua, Ipar Euskal Herriko lehen mendi taldea izan zen.

Klubeko egoitzan posta bidez jaso genuen Gorobel Ibilaldiko kartela 1980ko hamarkada hasieran. Hemen Baionan badira arabar gutxi batzuk eta haiei galdetu nien. *Pitxi* gasteiztarra nirekin batera Amurriora bidaia egitera animatu zen.

Egun bat lehenago iritsi ginen eta Urduñan hartu genuen ostatua. Ez genuen inor ezagutzen bertan. Martxaren egunean egundoko hotza egiten zuen, dena zegoen izoztua. Orotariko eguraldia ezagutu dugu Gorobel Ibilaldian baina lehen urte hartako hotza ez dut inoiz ahaztuko. Motxila oso astunekin egin genuen martxa, eta antolakuntzako kide batek amaitzeko gai izango ez ginela esan zigun bideko kontrol batean. Mendizaleak ginen eta bagenekien bukatzeko gai ziango ginela, eta noski bukatu genuela! Lagunari babak atera zitzaizkion oinetan baina bukatu genuen (barreak). Bereziki gogoan dut oso ondo artatu gintuztela Goizale Aterpean.

Orduz geroztik urtero izan dira ipar-euskal herritarrak Gorobel Ibilaldian.

Lehenengo urte hartan bi lagun bertaratu baginen hurrengoan hamar izan ginen Ipar Euskal Herritik Amurriora hurbidlu ginenak. Geroztik urtero urtero errepikatu dugu, eta arraroa izan da hamar lagun baino gutxiago elkartu garen edizioa. Edizioren batean Ipar Euskal Herriko talde gehiago ere izan dira bertan. Behin Ainhoako Atxulai taldeko 30 lagun autobusez etorri ziren. Gorobel Ibilaldiko sukarra kutsatu dugu Ipar Euskal Herrian nolabait (barreak).

Harreman estua egingo zenuten Mendiko Lagunak taldeko kideekin.

Beti egin digute harrera beroa Amurrion. Bezperaz egiten genuen bidaia herrira eta askotan pilotalekuan atondu digute lo egiteko tokia. Harreman oso estua garatu genuen Mendiko Lagunak Taldearekin; martxaren aurretik afaria egiten genuen denok batera. garaia bateko kideen seme-alabek egiten digute harrera orain, hori oso polita da. Sortutako harreman estu horrek Ipar Euskal Herrira eraman ditu ere Mendiko Lagunak taldeko kideak. Askotan etorri dira gure mendietaz gozatzera eta Maskarada bat edo beste ikustera. Gure klubak aterpea du Bidarrain, eta noizbait ibilaldiren bat antolatu dute bertatik abiatuta.

Hain da estua gure harremana, ezen erretiratu nintzenean Marokora egin nuen bidaia Mendiko Lagunak taldekoekin.

Zer du bereiza Gorobelek?

Zonaldea izugarria da. Oso gauza interesgarriak ditu Gorobel mendilerroak: loberak, Nerbioiko ur-jauzia, artaldeak... Eguraldia ere oso aldakorra da, batzutan elurra, bestetan lainoa... mendi-giroa erabat.

Aurten etortzeko asmoa duzue?

Bai noski! Izena emanda gaude dagoeneko, eta aurten ere hamar lagun inguru hurbilduko gara Gorobel Ibilaldira.

Kirola

ATLETISMOA



Abenduan egiten da Amurrioko Nazioarteko Krosa. **Aiaraldea.eus**

Amurrioko Nazioarteko Krosak Zornotzakoarekin, Donostia-Lasartekoarekin eta Elgoibarrekoarekin batu ditu indarrak ‘Euskadi Krossak’ ekimenean

Testua
Aitor Aspuru Saez

Elgoibarren aurkeztu zuten *Euskadiko Krossak* marka. Izen horrek barne hartzen ditu Euskal Herrian dauden lau nazioarteko kros lasterketak. Guztiak emititzen dituzte EITBn baina, ikusgarritasuna indartzeko, egitasmo berean batu dira.

Horrela, Zornotzako Krosak (igandean jokatuko dena), Donostia-Lasartekoak (azaroaren 1ean), Amurriokoak (abenduaren 27an) eta Elgoibarkoak (urtarrilaren 17an) egitasmo bateratuan aurkeztu dituzte euren proposamenak.

Amurrioko lasterketako antolatzaileek eurek aitortu dutenez, helburua argia da: elkarrekin indarra hartzea, Euskal Herriko kros atletismoa indartzea eta, azken batean, errotutako proba hauek etorkizunera begira sendotzea.

Oinkariak sustapen lanetan

Beste lasterketa batzuekin indarrak batu ez ezik, Oinkariak taldea, Amurrioko Nazioarteko Krosaren antolatzailea, badabil bestelako ekintzak prestatzen ere, atleten eta ikusleen interesa pizteko.

Esaterako, Internet bidezko solasaldiak egin dituzte goi mailako lehiaketa horretan aritzen diren kirolariekin eta publikoak ere galderak egin ditzake. Momentuz, Ruben Alvarez, Jimena Blanco, Katherine Tisalema eta Majida Maayouf izan dira elkarrizketatuak; eta, horrez gain, Telegram taldea sortu dute informazioa zabaltzeko.

TXIRRINDULARITZA

Bere lehen garaipen profesionala lortu Gotzon Martinek Panaman, Euskaltel-Euskadiren mundu mailako sailkapena egonkortuz



Euskaltel-Euskadi taldeko kideak Panaman; tartean Gotzon Martin, Hodei Muñoz eta Mikel Landa. **Euskaltel-Euskadi**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bere lehen garaipen profesionala lortu zuen Gotzon Martinek Panamako Chiriqui probintziako lasterketa klasikoan, iragan urriaren 17an.

Orozkoarrak helmugatik bi kilometrora abiatu zuen erasoaldia, bere taldekideen babesean. Hain zuzen, lehen sei postuak bereganatu zituzten Euskal Herriko taldeko kideek, eta Hodei Muñoz tartean. Luiaondoarra hirugarren sartu zen helmugara, Xabier Isasaren atzetik.

Larunbatekoarekin, sailkapen orokorrean ere buru jarri zen Martin, eta postu hori defendatzea egokituko zitzaion urriaren 18ko bigarren eta azken etapa erabakigarrian. Taldeak Panaman lortzen duen bigarren garaipena izan zen Martinena, ostiralean Gran Prix Chiriqui txapelketan gailendu baitzen Xabier Berasategi.

TOP 30aren lehia

Orozkoarrak erdietsitakoarekin, zortzi garaipen lortu ditu orotara Euskaltel-Euskadi taldeak aurten. Modu horretan, munduko 30 talde onenen artean kokatzea lortu du, 28. postuan. Lehia estua izan da azken unera arte TOP 30a osatzen duten azken taldeen artean. Panamako garaipenei esker mundu mailako sailkapenean

28. postua ziurtatuta Gotzon Martin eta Hodei Muñozen taldeak aukera izango du datorren urtean Frantziako Tourrean, Italiako Giroan edota Espainiako Vueltan parte hartzeko. Aiaraldeko txirrindularien ekarpena berebizikoa izan da bide horretan. Datorren denboraldian Mikel landa amurrioarra batuko zaie taldearen lidertzan.



Herriko plaza

Denborapasak


SUDOKU ZAILA

	9	2			7			
					1	3		
		6		8			2	
8		9						7
			5					3
						6	5	1
	1	5			3			
				1	2	9		
2		8			9	4		


SUDOKU ERRAZA

	3					5		
				4				
		8				2	3	4
8					4			7
			5		2			9
5	7	6	8	9	3			
6	2	1		3			7	8
	5			8	6	4		
		4		2	9			5

GREKO MATEA



ANDERSEN MATEA



Zuriek jokatzen dute eta mate egiten dute.
Amurrioko Xake Taldea

DENBORAPASEN SOLUZIOAK
Sudoku eta xake partiden soluzioak webgunean ikusgai: www.aiaraldea.eus/denborapasak



Harkaitz

Lasai, hau ez da KOTen beste iragarki bat... Zorionak Harkaitz! Maite zaitugu!

Lankideak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 6an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Zozketa



Errigorako bi produktu saskien zozketa egingo du Aiaraldea Komunikabideak

Parte hartu!

“Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka” kanpainan salduko dituzten bi saski mota zozkatuko ditu Aiaraldea Komunikabideak.
Zozketaren data: Urriak 31, 14:00etan

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus | agenda@aiaraldea.eus | erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus | 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54 | 688 84 81 52
Webgunea: www.aiaraldea.eus

Erredakzioa: Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares, Garazi Cuadra Alvarez eta Aimar Gutierrez Bidarte

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI: Aitziber Alava, Josu Zabala, Gemma Corbella, Endika Arribas, Gorka Chamorro, Ane Izquierdo, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Amets Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku, Iratxe Murias.

LIZENTZIA: DOAN ETA LIBRE
Aiaraldea komunikabideko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, Aiaraldea Komunikabidea daramatzatenentzat soilik.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:


orozko · Urduña Orduña · Artziniega Udala · Arrenkudiaga-Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondo Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

araba álava foru aldundia diputación foral

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

HEZKUNTZA

Irakurketa gunea



ORTUPOEMAK

Idazlea: Leire Bilbao
Ilustratzailea: Yolanda Mosqueraa
Argitaletxea: Pamiela
Lau urtarotan banatutako berrogeitasei poema aurkituko dituzu lburu ilustratu honetan. Zuhaitzak, barazkiak, frutak dira poemen protagonistak. Beraiekin batera, elikaduraz, garaian garaiko produktuez... ikasiko dugu.



LARUNBATAK

Idazlea: Jon Arretxe
Argitaletxea: Elkar
Adina: 12 urtetik gora
Triolgia baten bukerako ipuin bilduma da aurkezten duguna. Txakur baten begiradapetik, gazteen bizimoduak aztertu egiten ditu modu barregarri eta ironiko batean. Irakurtzeko erraza eta harrapatzen zaituen eleberri horietakoa da.

JOLASGUNEA

KANTU ESKEAK

ZER DA?
Arimen Gauean hainbat modu daude kantu eskean aritzeko, hemen batzuk:
- Xanduli Manduli kirrikiki, eman gaztainak guri
- Xingila Mingila Kurruskario, sagarrak merke eta udareak kario
- Ziria edo saria
- Sosa ala pota

ERABILI EUSKARAZKO KANTU ESKEAK!



Nola jantzi Arimen Gauean?



Euskal tradizioan eta gure kulturan, hamaika modu daude Arimen Gauean mozorratzako. Horrek ez du esan nahi mozorro denek balio dutenik.

Bi ezaugarri garrantzitsu izan behar dute:

1. Beldurra eragiteko aurpegia estalita eramaten da, izara txuri batekin adibidez.
2. Etxeko trapu eta arropekin egiten da mozorroa.

Beraz erraza baino errazagoa da euskal kulturan erabiltzen den mozorroa. Eta arestian esan bezala, bakoitzak bere etxetik hartutako arropak izanik hamaika modu daude kalera ateratzeko. Hala ere, garrantzitsua da ohitura ez galtzea. Olentzero eta Mari Domingi egunean inor ez dugu ikusiko Santa Claus bezala mozorratuta, gure tradizioei helduta gure jantziak jartzen ditugulako. Ba Arimen Gauean berdina egin beharko genuke.

Kaletik beldurra eragiteko eta gaueko izaki maltzurrek gu ez ezagutzeko estali aurpegia eta gozatu etxez etxe kantu eskean.

KO KO- RI KO

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Arimen Gaua

Negua gertu da, iluntasunak eta gauak eguzkiari gailentzen zaizkio. Beldurraren aroa da, Gaueko indartsuen dagoen garaia. Badator aurten ere Arimen Gaua, eta berarekin batera hainbat ospakizun burutuko dira , bai Euskal Herrian eta baita Aiaraldean ere.

Naturaren aldaketei lotutako eguna da Arimen Gaua. Aro baten bukaera eta berri baten hasiera dator. Natura, handitze eta uzkurtze jarrai batean bizi da, oparotasunetik urritasunera, asko ematetik asko eskatzera... Uzta garaitik gatoz, non Amalurrek jateko behar ditugunak eman dizkigun, zuhaitzak indartsu egon diren... Baina.. Jadanik ezer gutxi geratzen da gure lurretan, zuhaitzek galdu dituzte beraien hostoak eta soil agertzen dira mundura.

Fase aldaketa hau da Arimen gauean bizi duguna. Pertsonak ere, naturaren parte garenez, fase aldaketa hori gure barrenetan sentitzen dugu, hedapen fase batetik, uzkurtze fase batera pasatzen gara, etxean eta etxekoekin gusturago gauden fase batera, gure barrenei gehiago erreparatzen diegun fase batera... Fase aldaketa hauek pertsonok betidanik egin ditugu erritual ezberdinekin. Atzean utzitakoa agurtu eta berriari ondo heltzeko.

Arimen Gauean hau ulertzea ezinbestekoa da, zer egiten dugun eta zer ospatzen den jakiteko. Ez dut uste edozein modutan egin daitekeen jai bat besterik ez denik, ezin da izan naturatik aldendutako jai bat besterik ez. Arimen Gauak, Amalurrarekin eta naturarekin gehiago konektatzeko balio behar digu, gure kulturarekin eta aurrekoen bizipenekin konektatzeko eguna behar du izan. Ingurune naturalarekin, geroz eta deskonektatuagoak gauden honetan eta biofobikoak diren geroz eta jarrera gehiago ditugun honetan ezinbestekoa zaigu gure aurrekoek egin bezala naturarekin konektatu, gure gorputzekin konektatu eta kanpoan zein barruan ditugun aldaketak ulertzea eta ongi etorria ematea.

Arimen gauak orain arte iraun badu, gure aurrekoentzako ere garrantzitsua zelako da, beraz, konekta gaitezen Amalurrarekin, atzean utzitakoari agur esan eta datorrena onartu eta bizi.

Izan dadila aurtengo Arimen gaua, Gure buruekin birkonektatzeko eguna.

Aiaraldeko Hezkuntza Faktoria



Zenbat dira?

- Marka itzazu irudi honetan daude sagu guztiak. Zortzi daude.

- Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu?


Labirintoa

Lagundu mamu honi bere etxe sorginduraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu, eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tarteak dira.



Idatzi hemen esaldia. _____

Soluzioak



Kontra
Mundutik Aiaraldera



SASCHA SEILER eta JOHANA GUTZEIT

JAIOTERRIA
GEISENHEIM (Alemania)

BIDAIAREN XEDEA
ERASMUS+ PROGRAMAREN BIDEZ ETORRI DIRA LAUDIORA, INSTITUTUAN EGONALDIA EGITERA.

"OSO DESBERDINA DA TURISTA BEZALA ETORTZEA **EDO BERTAKO HERRITARREN EGUNEROKO BIZITZAN MURGILTZEA"**

Erasmus+ proiektuarekin etorri zarete Laudiora. Nolatan?

*Johana Gutzeit:*Gu Geisenheimekoak gara, Frankfurtetik gertu dagoen Hessen eskualdeko hiri txiki bat da, Rhin ibaiaren ertzean. Guztira hamaika ikasle eta bi irakasle etorri gara.

Sascha Seiler: Gure ikastetxea Erasmus+ ikastetxe akreditatua da, eta erraztasuna daukagu Europa mailako mugikortasun proiektuak garatzeko. Duela sei hilabete jarri ginen harremanetan Laudio Institutuko lantaldearekin eta bertan jaso genituen oporren aurretik. orain, oporrak tarteko bidaia baten eta bestearen arteko tartea luzatu bada ere, guri egokitu zaigu etortzea.

Astebeteko egonaldia egin duzue.

J.G.: Igandean iritsi ginenean oso harrera ona izan genuen Loiuko aireportuan. Kartel eta pankarta handi batekin eman ziguten ongi etorria. Gu ez gara hain profesionalak ongi etorrietarako. Ikasleak familiekin elkartu ziren eta guk Bilbo ezagutzeko tartea hartu genuen, bertako hotel batean geratu gara eta.

S.S.: Astelehenean Laudioko udaletxean egin ziguten harrera. Ekitaldi bat prestatu ziguten bertan. Aurretik Institutuko gimnasioan batzartu ginen Euskal Herriko ohiturei buruz gehiago ezagutzeko.

J.G.: Asko harritu gintuen alkateak hainbesteko tartea eskaintzea guri, euskarazko hitz batzuk ere eskaini zizkigun. Jarraian unibertsitateko irakasle batek eskualdeko historiari buruzko hitzaldia eskaini zigun.

S.S.: Gainerako egunetan toki desberdinetara egindako bisitak eta Laudion garatutako ekintzak uztartu ditugu. Besteak beste, kale inkestak eta bestelako tailerrak egin dituzte ikasleek. Bisitei dagokienez, Donostia, Gernika edota Bilbo ezagutu ditugu.

J.G.: Guggenheim museoan egon ginen. Ikasleak hasieran ez zeuden oso gogotsu, ohiko museo bat izango zela uste zutelako. Baina txundituta atera ziren hemendik.

Zuen lehenengo aldia da Euskal Herrian?

S.S.: Ni oporretan etorri nintzen iaz.

J.G.: Ni ere pare bat aldiz igaro naiz hemendik. Oso desberdina da turista bezala etortzea edo bertako herritarren eguneroko bizitzan murgiltzea. Aldea izugarria da. Gertutik bizi izan ditugu hemengo ohiturak, eta euskararen egunerokoa bera.

Zerk harritu zaitu gehien?

J.G.: Jendea oso irekia da. Asko harritu nau bertako jendea elebiduna izatea, oso zaila behar du izan hizkuntza hain desberdinak menperatzeak.

S.S.: Euskal Herriko jendeak politika ulertu eta tratatzeko moduak harritu nau ni. Argi dago ez duela zer ikusirik Espainiako politikarekin, beste interes batzuk dira hemen nagusitzen direnak.

Zer uste duzue ikasi dutela ikasleek Euskal Herrian egindako egonaldian?

J.G.: Pazientzia gehiago izaten ikasi dutela esango nuke. Ondo ulertzeko gauzak bi edo hiru aldiz entzun behar dira. Hizkuntzatik haratago ere uste dut gorputza eta aurpegia komunikaziorako tresnak direla ulertu dute ere. Bertako familiekin garatu dituzten harremanak ere oso interesgarriak direla uste dut, jendearen arteko lotura hauek eragina dute norbanakoarengan. Etorkizunera begira pertsona desberdinekin hobeto elkar harremantzeko tresnak garatu dituzte.

*S.S.:*Alemaniako ikasleek uste zuten harrera-familia guztietan ingelesez komunikatzeko aukera izango zutela, baina ez da horrela izan. Horrek erronka polita suposatu du ikasleentzat.

Zer antzekotasun dituzte Alemaniako Hessen eskualdeak eta Aiaraldeak?

J.G.: Biak landa-eremuko eskualdeak dira. Geisenheim bera oso hiri txikia da. Gure eskualdean ardoa ekoizten da, hori da bere ezaugarri nagusia. Uste dut gure ikasleak eta Aiaraldekoak nahiko antzekoak direla. Ikusi dugunez oso komunitate hurbila da hemengoa, eta jendeak elkar ezagutzen du, gurean ere antzekoa da.

S.S.: Otorduen ordutegian aurkitu dute ikasleek talka kulturalik handiena. Arratsaldeko seiak aldera afaltzen da Alemanian eta hemen, aldiz, bederatziak aldera.

Bueltatzeko gogoak dituzue?

S.S.: Bai noski. Oso lurralde interesgarria da. Alemaniako turistak Balear Uharteetara, Bartzelonara edo Madrilera joan ohi dira. Euskal Herriak, ordea, asko du eskaintzeko. Ziur bueltatuko garela.

ALEMANIA



DESKRIBAPENA
Alemaniako Errepublika Federala Europa eridaldeko estatu burujabea da.

AZALERA
357.375,6 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
84,6 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Alemana da hizkunzta ofiziala. Sorabiera onartua da Kottbus eta Bautzen hirien barrutietan; eta danierak, frisierak eta erromani hizkuntzak ere badute ezagutza ofiziala, eta babestuak daude.